



Guztiontzat festa Ormaiztegin

Arg.: M. Albisu



h e m e n
DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA

Azaroak 25-etik abenduak 9-arte

Heldu da Eguberria



PRYCA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Agider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Aitor Arrue, Ur-
ko Irastorza, Koldo Urrestarazu,
Josune Aldabe, Gabino Murua,
Eduardo Albizu, Aitziber Murua,
Nagore Goiburu, Rufino Iraola,
Andoni Sarriegi eta Zorion In-
sausti.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA
Kultur Elkartea



**Goierriko
euskara
taldeen II.
jardunaldia
bihar Lazkaon**

Bihar larunbata, azaroak
29, goizeko 10.00etatik
1.30etara, Lazkaoko Maiz-
pide euskaltegian egingo
da Goierriko euskara tal-
deen II. jardunaldia.
'Goierriko Udaletako hiz-
kuntz funtzionamendua eta
plangintza' gaia izango da
aztergai.

Jardunaldiaren lehen
zatian, Beasain, Idiazabal
eta Itsasondoko herrietako
adibideak emango dituzte,
Amaia Usabiagak (Bea-
saingo Udaleko Erabilpen
Planeko teknikaria) eta
Gurutze Sukiak (Beasain-
go Udal Euskaltegiko Zu-
zendaria); Xabier Imazek
(Idiazabalgo Udaleko Kul-
tur batzordeburua eta zine-
gotzia); eta Blanca Muji-
kak (Itsasondoko Udaleko
Kultur batzordeburua eta
zinegotzia). Datu demo-
grafikoak, euskararen eza-
gutza eta erabilera, hiz-
kuntz plangintza, Udal ba-
rruko, nahiz kanpoko (bes-
te administrazioekin, he-

rritarrekin...) ahozko nahiz
idatzizko harremanetako
hizkuntza, herria euskal-
duntzeko egitasmoa... eta
abar azalduko dituzte.

Bigarren zatian, Goieki-
ren '2005 plangintza'
plangintzaren euskarari
buruzko azalpena egingo
du Joan Manuel Barandia-
ran, Goiekiko Zuzendari
Orokorrak.

Hirugarren zatia, ezta-
baida irekia egingo da.
Aurkezle eta moderatzaile
lanetan Dionisio Amunda-
rain ariko da.

Goierriko Euskal Esko-
lak eta Ordiziako Hitza
euskara taldeak gonbitea
lutzatu die, "euskararen
eta euskal kulturaren alde
lanean ari garen norbana-
ko, elkarte eta erakunde-
ontzat lagungarri eta abe-
rasgarri izango delakoan
errealitatea ezagutzea eta
denok izango dugunez zer
aportatua, parte hartzera
gonbidatzen zaituztegu".

BOTA BERTSOA



Iñaki Apalategi

**Erretzaileen
aurkako kanpaina**

*Doinua: Hamarreko
handiko edozien*

Lehendik ere entzunak dira
hontaz hamaika abesti
ta tabakoa utzi nahi du(e)na
agertu ohi da amesti
baina halere azaltzen gera
honen aurrean jolasti
tabakoak gu hiltzeko dauka
nahi duena a(d)ina asti
o(r)ain tabakoa ateratzen da
benetan oso garesti.

Hainbeste jende minbiziz edo
birika arazoz hila
kanpaina on bat burutzearen
izan behar da abila
jende gehiegi erori ohi da
hauze da mundu purtzila
tabakoakin batera ere
erretzen direnez mila
aurten kanpaina lehengoak baino
hobea izan dadila.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Xabier Azurmendi

Iazko azaroaren 26an hil zen Xabier Azurmendi, besteak beste, poeta, historialaria eta ikertzailea izana. Egindako lanak asko izan arren, geurekin egindakoez ariko gara gaur.

Gerriko Ikerlan Sariketa-
ren partaidea eta bultzatzaile,
ikertzailea izan zen gu-
retzat, lagunaz gain, Xabier.
Berari esker dakigu San
Adrian eta inguruei buruz le-
hen ez genekien hainbat kon-
tu, berari esker ezagutu dugu
San Adriango galtzada zaha-
rra, bazenik ere?, eta beste
hainbat txoko.

Lan handia eskatzen dugu
Gerriko Ikerlan Sariketan,
bromarik eta jolasik gabeko
lana egin behar izaten du
ikertzaileak eta halaxe egin
zuen Xabierrek: ikerlana aur-
keztu, saria jaso, zuzenketak
eta osaketak egiten lanean ja-
rraitu eta, azkenean, pena, li-
burua argitaratuta ezin egile-
ak berak ikusi. Egileak berak
ez, baina guk eta beste askok
bai. Eskerrik asko, Xabier,
eman diguzun liburuagatik,
egin diguzun opariagatik.

Lan handia egin genuen
eta elkarlanak bere fruitua,
fruitu aberatsa eman zuen:
'San Adrian eta inguruen

kondaira'. Xabier Azurmen-
di, Gerriko, 1997. Argazki
eta kontakizunez betetako li-
buru atsegina da benetan.

Pozik egon gaitezke libu-
rua agortu delako, jendeak
interesez eskuratu duelako,
kaxatan sartuta, soberan, al-
ferrik, liburutik ez daukagu-
lako. Berrargitarapenaren
aukera ere ari gara aztertzen.

Urtebete bada Xabier zen-
du zela eta omen bezala Ze-
gaman, bere herrian, hainbat
ekintza antolatu eta burutzen
ari dira. Hainbeste eta gehia-
go merezi zuen Xabierrek,
bai horixe!

Mari Joxe Madariaga
(Gerriko Ikerlan Sariketako
Koordinatzailea)

Segurako EA eta EAJ- ren komunikatua

Segurako E.A. eta E.A.J. tal-
de politikoek zera adierazi
nahi dugu:

- Segurako bariantearen eta Zerkaldeko bidearen eraikuntza proiektuak aztertu ditugu;
- Kaltetuek nahiz eta interesatuek egindako iradokizun eta eskaera desberdinak aztertu ditugu;
- Gipuzkoako Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako Sail

desberdinetan dagozkion
kontsultak, bi proiektuen bi-
degarritasun eta egokitasunei
buruz, egin ditugu;

- eta Udal Arkitektoen txos-
tena ikusi dugu.

Informazio guzti honekin,
Segurako E.A. eta E.A.J.-k
bariantearen eraikuntza era-
bat apoiatzen dugu, egungo
arazoan ebazpiderako eta Se-
gurako garapenerako irtenbi-
de egokiena delako.

Dena den, apoio hau Gi-
puzkoako Foru Aldundian
bariantearen proiektuari aur-
keztu zaizkion alegazioen
azterketa eta hauei dagoz-
kien irtenbideekin lotuta da-
go.

Iñaki Agirre

Iñaki Agirre ataundarrak Laz-
kaoko Beneditar frailetan
ikasketak egin zituen, eta frai-
le heziketa ere bertan eginga
da. 14 urterekin meza emana.
Irakasle gazteei erakutsiaz eta
Estibaltzen hainbat urte pasa
ondoren, orain dela 29 urte
Amerikako Puerto Ricora jo-
an zen. Parrokia baten ardura
dauka. Etengabeko lanean. Bi
edo hiru urtez etorri ohi da fa-
milian eta lagunartean opor
aldia pasatzera. Beti ohi du-
gun bezala, agur edo despedi-
da afarixko bat egin genion.

68 urte ditu eta hurrengo
etortzen denean 70 beteak
izango ditu. Bertan apaiz eta
fraile eskasia dagoela eta beti-
rako hona etortzeko esan ge-
nion.

Berriro uzten dezu
gure Euskalerrri
lendikan badakizu
zuk emengo berri
apaiz ta pralle eskas
gabiltzala larri
laister gerade bertan
ez zar da ez berri
bi urte pasatzean
erabat etorri.

Pralle zuzena zera
jarraitzen Kristori
erlijio gauzetan
da mila istori
aldana lagunduaz
jendetza askori
oso fiña zerala
badakit nik ori
zenbat lagundu diozun
zuk Puerto Rikori.

Konsejuto bat eman
nahi dizut maian
aspalditxotik nengon
gauz au esan naian
bertan bizi zindezke
zu era alaiari
emen mezak emanaz
asteen da jaiari
San Martin, San Gregorio
da bestela Aian.

Patxi Telleria

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

Bertsozale biziata

Datarik gabeko bertsozalea naiz ni. Nik ez dezaket aipa, batzuek beza-la, bertsozale bihurtzeko izan nuen lehen esperientzia, motibo edo arrazoia. Badirudi neurekin batera jaio eta neurekin batera hazi dela, eta orain badakit azken egunera arte guztian elkarrekin beharko dugula.

Hala ere, modu txit diferentean erlazionatu naiz bertsolariarekin bizitzan zehar. Jainko kutsuzko mito ziren niretzat Xenpelar, Pedro Mari Otaño, Iturrino eta beste asko. Behizain nenbilen bitartean irakurtzen nituen haien bertsoetan misterioa ikusten nuen.

Txirrita eta Pello Errota deskribitu nituen gero. Hauen bertso eta pasadizo asko beraiek ezagutu zituztenek kantatu eta kontatuta ikasi nituen. Ondoren, haragi eta hezurrezko bertsolariak ezagutzeko ditxa izan nuen: Basarri eta Uztapide. Bertsoetan gozatzen jarraitzen nuen, nahiz eta misterioa apurka-apurka desagiten zihoan. Handik laster izango dut bertsolariak aurrez aurre ezagutu eta haiekin hitz egiteko parada. Horrek mitoaren suntsipena ekarriko du, baina baita bertsolaritza lehen iritziak trukatzeko egokiera ere.

Etorriko da epaimahaiko izateko ordua. Helduko dira bertsolari gazteak, eta berriro harreman pertsonal urrunagoen garaia. Iritsiko da komentaria eta kritiko izateko sasoia. Erasango didate bertsoa politika-bide jakin bati makurtuegi dabileneko edo zenbait bertso-egikera dela bide bertsolaritza desmadratzan ari deneko susmoek. Promes egingo dut bertsoez ez naizela gehiago arduratuko, baina baita azkar damutu ere, eta, zurrunbiloaren erdian, beti bertsozale ni. Zaila da bizioari fronte egitea, eta, ezeren okerrik ez dela, igandean ere hortxe izango nauzue Beasainen.

Rufino Iraola



Zein iritzi daukazu Lareo inguruko turismo-guneaz?



Mari Karmen Sukia

**42 urte, harakina
ataundarra**

Ez daukat informazio handirik. Baina inori kalterik egiten ez badio, eta bakarren bati on egiten badio, aurrera!

Aitor Etxeberria

**18 urte, ikaslea
ataundarra**

Ez dut ezagutzen gehiegi. Ekologistak kontra daude, kutsadura dela eta. Diru piska bat ateratzea ere ba omen dago...



Fernando Etxeberria

**84 urte, jubilatua
ataundarra**

Ni mendian ibiltzekoa izan naiz. Ganaduarekin ibiltzen ginen mendian. Gure bizia izan da Aralar. Turismo-guneak kalte egingo dio ganaduari.



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

**Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN**

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*'Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

Bateak Taldea
SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12 **LAZKAO**
Tfnoa.: 88 86 20 Faxa: 88 91 18
Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

ZINEA

BEASAIN:

'A ciegas'. Ostirala 28, 10:15, larunbata 29: 19:30 - 22:15.

'Trinidad y Bambino'. Larunbata 29: 17:00.

'El pacificador'. Igandea 30: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30 - 22:15.



ORDIZIA:

'Full monty'. Ostirala 28, 10:15, larunbata 29: 19:30 - 22:15; igandea 30: 19:30 - 22:15; astelehena 31: 19:30.

'Bogus'. Igandea 30: 16:45.

'Anaconda'. Ostirala 5: 22:15; igandea 7: 16:45.

'Air force ONE'. Larunbata, 6: 19:30 - 22:15.

'La boda de mi mejor amigo'. Igandea 7: 19:30 - 22:15; astelehena 8: 19:30 - 22:15; asteartea 9: 19:30.

GOIENIZ:

Abenduak 4, 21:00etan.
Usurbe Antzokian,

'Nosferatu, el vampiro'
F. W. Murnau
(Alemania, 1922)

Bram Stoker idazlearen elaberrian oinarritutako bigarren filmea, alemaniar expresionismoaren gailurra eta 'Drakula' ren agerpen ederrenetako bat da ezbaierik gabe. F.W. Murnauk zinema mutuaren maisulan honetan, banpiroaren bidaia deskribatuko digu Karpato mendikate urrunetik hirira eta bertan hedatu den ezinegon... Argiaren eta ilunaren arteko lehia ikusgarria, zinemaren historian gutxitan parekatu dena, inoiz parekatu bada.

'Las novias de Dracula'
Terence Fisher
(Britainia Handia, 1960)

Terence Fisherren banpiroei buruzko hirukote ospetsuaren bigarren atal honetan, aurrekoan ('Dracula') ez bezala, konte odolzalearen arrastorik ageri ez arren, zirrara eta beldurra muinetaraino iritsiko zaigu.

Bi zatitan banatua, lehenengoan barnetegira bidean doan andereño gazte baten gaztelu ilun batean gaua igaro beharko du; bigarrean aldiz, Van Helsing jaun ausartak Meinsten baroiari aurre egingo dio...

MUSIKA

BEASAIN:

Azaroak 29, Monse Auzmendi pianojolearen kontzertua, Udaletxeko Batzar-aretoan, 19:30etan.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 28, Ormaiztegi Rock taldeen kontzertua, herriko enparantzan, 23:00etan.

Azaroak 29, 'Joselu Anaiak' taldea, Zubipe kiroldegian, 23:30etan.

Azaroak 30, Easo abesbatzako Eskolania, Elizan, 11.00etako Mezaren ondoren.

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Azaroak 30, Euskal Herriko bertsolari txapelketa-ko finalaurrekoetako azken saioa, Antzizar kiroldegian, 17:00etan. Bertsolariak: J.M. Irazu, O. Enbeita, M. Mendizabal, A. Sarriegi, J. Sorozabal eta A. Lopategi.

HITZALDIAK

LAZKAO:

Abenduak 2, Lana aurkitzeko teknikei buruzko hitzaldia, Iñaki Dubreuilen eskutik, Udaletxeko batzar-

aretoan, 17:00etan. Antolatzailea: Azki emakume taldea.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Abenduak 10, 'Mendizerra zuria' ikusentzunezkoa, Koke Lasaren eskutik, Udaletxeko Areto Nagusian, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 30era arte, Jokin Telleria beasaindarren pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

ORDIZIA:

Azaroaren 29ra arte, 'Idazkeraren lehiaketa' erakusketa, Barrena Kultur Etxean.


Azaroaren 28tik abenduaren 12ra, Axier Mendizabal eta Iñaki Garmendia- ren erakusketa, Barrenan.

ZEGAMA:

Urtarrilaren 7ra bitartean, 'Buztingintzaren aztarnak, Gregorio Aramen- diren omenez' zeramika erakusketa, Eskola Zahar- rean.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako ☎ eta faxa: 889113 - ☎ mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

IRTEERAK



Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 30, Mutiloara.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 30, Finalistaren eguna.

Txotxongilo jaialdia Ordizian

Tolosako txotxongilo jaialdiaren barruan, Ordizian ere izango dira bi saio:

Abenduak 3: Txekiako Naiftheatre taldeak 'Alibaba' lana antzeztuko du, Herri Antzokian, 19:00etan.

Abenduak 4: Mexiko-ko Palleti taldearen esku-
tik, 'Rosendo, el rinoce-
ronte', 19:00etan, Herri
Antzokian.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Azaroak 29-30: Atorrasagasti (Gipuzkoa, 15 -Ordizia).

Abenduak 6-7: Cuesta (Nafarroa Etorb., 39-Beasain).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.

☐ Ordizian Arantxa taberna traspasatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.

Lana:

☐ San Miguel Arcangel kontsultorioa: etorkizuna igartzea, kartak botatzea, aura garbiketa eta zazpi potentziatako bainua. 88 38 11 - 88 99 83.

☐ 2 neska euskaldun prest daude zaharrak, haurrak eta minusbaliatuak zaintzeko. Esperientziadunak. 882589.

Salerosketak:

☐ Metal zone MT2 distorsio pedala eta Peabe TKO baxu anplia salgai, 80 batio-koa. 88 47 68. Jon.

Bestelakoak:

☐ Urriaren 20an Simca 1200 kotxea lapurtu zuten Beasaingo Mendeurren kaltetik. Berde metalizatua eta SS-5645-H matrikula zenbakiarekin. Norbaitek ikusi badu, dei dezala 88 62 76 telefonora edo Ertzaintzaren bulegora.

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN



Etxeko eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01



ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



Taldekoa

☎ 88 23 00

ORDIZIA

IBAI-ONDO




ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN



Andoni Sarriegi
Eskisabel

Beasaingo Udaleko
Euskara-zerbitziburua

Diputazioko lan- mahaien aurkezpena Beasainen: Goierriko politikarien hutsune nabarmen- egia

1997ko urriaren 29an, eguerdiko 12etan, Gipuzkoako Diputazioak 1996ko abenduaz geroztik antolatuak dituen Euskararen Normalkuntzarako 3 lan-mahaien ihardunaren berri eman zen Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan. Horrelako beste bi aurkezpen ere eginak dira Eibarren eta Donostian. Beasaingorako, Billabonatik Zegama eta Legazpira bitarteko Alkateak (edo zinegotziak) eta teknikariak zeuden deituta.

EGINKIZUN HORRETAARA, bertan izan ziren Arantza Aurrekoetxea and., Herri-administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaria (Eusko Jaur-laritzako HPSkoa), Xabier Huiz jn., Gipuzkoako Foru Diputazioko Euskararen Normalkuntzarako Zuzendari Nagusia eta Gotzon Egia jn., Diputazioko Euskara-zerbitziburua. Halaber, bertan izan ziren Joxan Amundarain jn. eta Nekane Jauregi and., Diputazioko Euskara-zerbitzuak mahai horietarako jarraitako koordinatzaileak eta Siadecoko Joan Jose Allur jn., mahai horietan zuzendaritza eta aholkularitza teknikoaz arduratzen den enpresakoa.

ARANTZA AURREKOETXEA A.AK, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 dekretuaren ildotik, 1998ko apirilerako administrazioko erakundeek Erabilpen-planak egin eta onetsi ondoren abiarazi beharko zituztela aipatu zuen. Aurreko dekretuaren ondorioz administrazioan euskara-ikasketetan egindako ahal-egina, oraingo honek erabilpenarekin lotzen zuela adierazi zuen. Horretarako, jada egiten ari diren Bergarako eta Antzuolako frogak pilotuak aipatu zituen eta baita ildo horretan dagoeneko sartuta dauden beste 30 bat udal inguru ere. Arloz arloko erabilpenaren garrantzia azpimarratu ondoren, laguntza teknikoak, aholkularitza eta beste eskaini zituen bide horretan zehar ibili behar zutenentzat.

Azkenik, Gipuzkoako Diputazioak sortutako hiru mahaietako bat erabilpen-planena izatea, oso lagungarri gertatuko zela adierazi zuen, egitasmo horiek aurrera eramateko.

XABIER HUIZI JN.AK, euskararen arloan egiteko gauza asko egon arren, lehentasunezko hiru esparru aukeratu eta aspalditik UETSek (Udaletako Euskara Teknikarien Sareak) eskatua zuen elkarren arteko koordinazio organikoa neurri batean eta premiazkoen ziren arloetarako Gipuzkoan bederen Diputazioak eskaintzea deliberatu zela aipatu zuen eta hortik sortu zirela hiru mahaiak 1996ko abenduan: Erabilpen-planena, Merkataritzakoa eta Kirol-arlokoa. Garbi zutela adierazi zuen, erabilpen-planena administrazio-barrurako zen moduan, kanpoko esparruetan ere lan egin beharra zegoela eta horregatik ekin zitzaizela merkataritza-arloari eta kirolarenari.

HIRU MAHAIETAN 1996ko abendutik 1997ko urrirarte egindako bileren eta haien ondoriozko ihardueren bitartez egindakoak azaltzen dituen laburbilduma enkoadernatua banatu zuten eta Gotzon Egia jn.ak gardenki bidez laburpen horren zertzelada nagusienak azaldu zituen.

EUSKARAAREN ESPARRUAN gaiak duen interesa ukaezina da. Lehenengo aldiz, udalen gaineratik dagoen erakunde batek, udal-tako teknikariekin sistematiko ki lan egitea deliberatu du eta ez administrazio-barrurako bakarrik, baita gizarterako ere. Gainera, merkataritza eta kirolen kasuan, euskara-teknikariak ezezki, arlo horietako teknikariak ere eskuhartzen hasiak dira (kiroletan jada ari dira eta merkataritzan ere laster hasiko da norbait).

LEHEN AURKEZPEN honen interes nagusia, orain arteko filosofiararen aldaketan datza nagusiki. Orain, euskara erabilia izateko urratsez, plangintzez eta hurre-

nez hurreneko neurriez ari gara (idazketez, zuzenketez, mintzamenek, zer-nori-nolaz, etab.), hots, ikasia baliarazteaz. Jada ez da jakite-kontua, erabiltze-kontua baizik. Eta horretan inork ez dit ukatuko Goierriin zehar, herririk erdaldunduene-tik euskaldun ustekoenerarte (gauza bat baita euskaldun huts-hutsa dela uste izatea eta beste bat gero % 100 hala funtzionatzea edo bizitzea), den-denetan dagoela zer pentsatua, zer aztertua eta zer egina.

AURKEZPEN HORRETAARA, goian aipatutakoez gainera, honako hauek etorri ziren: Alkateak (3): Zumarragakoa, Irurakoa eta Zizurkilgoa. Zinegotziak (2): Ibarakoa eta Billabonakoa. Teknikariak (10): Irurakoa, Zizurkilgoa, Beasaingoak (2), Ordiziakoa, Ibarakoa, Tolosakoa, Legazpikoa, Zaldibiakoa eta Billabonakoa.

IKUSTEN DENEZ, hutsune nabarmena Goierriko udalerrietako kargu politikoena, nabarmen-egia esango nuke nik: inor ez! Tamaina eta garrantzi horretako aurkezpen batera ez azaltzeak, Goierriko inolako euskararen erabilpen-kezkari ez dutela adierazten du argi eta garbi. Udal batzuek mahai horietan aztertutako gaiak beren kontura zerbait lantzen ari diren arren, Diputazioko mahai horietan bertan eredutzat jarri diren Deba-arrokoen eta Oarsoaldekoen eskualde-mailako lan-egitasmoak ez da prestatu nahi Goierriin, eskualdean elkar-reragina sortzeko inolako asmo eta kezkari ez da ageri. Politikari askoren euskara-arloko ezjakintasunak eta beste askoren epelkeriek, xalokeriek, tuntunakeriek edo asmo txarre-ak, aurrera ezin eginik jartzen gaitu Gipuzkoan euskaraz egiteko gazteri potentzialik onenetakoa duen eskualdean. Garaia da baikoitzak bere erantzukizuna bere bizkar gainean har dezan, edota hartzen ez badu, euskaldunok hartzea exigi diezaiogun.

ERREZETA



Ixi Mujika
Gerriko taberna
Lazkao

JOGURT KREMA

Osagaiak (6 lagunentzat): 6 jogurt natural, esne kondentsatu pote txiki bat, 4 limoi- en zukua.

Ontzi batean jogurta, es- ne kondentsatua eta limoi- en zukua ondo nahastu. Ondo- ren banako ontzietan jarri eta hotzgailuan sartzen dira. Hzten direnenan prest daude nahi denean jateko.

Postre hau egitea oso erraza da, edozeinek presta- tzeko modukoa. Gainera, jendeak oso gustora jaten duena. On egin diezazuela!



Zorion Insausti

Oreka Dietetika eta medikuntza naturala

Medikuntza naturalak bere barnean ikuspuntu asko di- tu (natura berak bezala): begia ikusiz pertsonaren osasun egoera jakin (irido- logia), sendabelarrak ema- nez gaixoa sendatu, oinak ikutuz pertsonaren osasun egoera jakin (reflexotera- pia podal), eta abar oso lu- ze bat. Nik esango nuke ehundaka modu daudela mundu osoan gizakiaren osasun egoera jakin eta sendatzeko. Normalean, metodo edo modu bat bai- no gehiago erabiltzen dira praktikan eta inportantea da, gaixo berorrek esaten edo sentitzen duenari kaso egitea.


AHOLKUA

Iridologia, begia aztertuz pertsona aztertu

Neronek erabiltzen du- dan metodoetako bat Irido- logia da. Argazkian (argaz- ki orijinala kolorezkoa da), eskubiko begia ikusten da, orduan gorputzaren esku- biko aldea nabarmentzen da (adibidez, gibela, esku- biko birika... baina ez bihotza). Aztertu behar de- na, begiaren irisa da (be- giaren barruko kolorezko borobila).

Orokorrean ikusten da irisa nahiko ona dela (or- duan konstituzio nahiko ona), erdiko borobil beltza- ren (pupila) inguruak zulo- ak ikusten dira eta hori

normala da, baina hortik kanpo zulo edo zikin gutxi ikusten da. Pupilaren ingu- ruan ikusten den borobil txuria flasharen argia da. Pupilatik nahiko urruntzen dira (digestio eta nerbio sistemak) zulo markak, ho- rrela posible da organu sis- tema hauek gaizki eduki- tzea. Oraindik ere datu gehiago atera daitezke bai- na esplikazioa konplikatu besterik ez litzateke egin- go. Horrela hau kontuan edukiz eta gaixoari galde- ketak eginez, bere osasuna nola dagoen eta zein trata- mendu behar duen jakin daiteke.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

29tik aurrera denda berrian izango gara



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia
Opariak

Legazpi, 3
☎ 88 04 06

ORDIZIA

Astebeteko gose greba, presoek eskubideen alde

10 lagunek astebeteko gose greba egin zuten azaroaren 15etik 22ra, Zaldibiako Mediku etxean. "Euskal Herriko presoek pairatzen duten sufrimendu, neke eta jasaten duten giza eskubideen etengabeko bortxaketa salatu nahi izan dute".

Aste osoan zehar, Goierriko herri ezberdinetan hainbat ekintza egin zituzten. Ostiralean, prentsaurrekoa eman zuten 10 gose grebalariek eta helburuekin bat egin zuten hainbat goierritarrek. Tartean ziren: Aitor Furundarena akordeoi-jolea eta ETBko aurkezlea; Lazkaoko bikarioa; Patxi Iraola, Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal bertsolariak; Takolo pailazoa; Joxe Migel Azurmendi preso ohia; Zaldibiako eta Itsasondoko alkateak, Iñaki Elizegi eta Joxe Mari Otegi; Zaldibiako Euskal Presoen aldeko herri ekimeneak; eta Goierriko LABeko arduraduna, Mikel Garmendia.

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikatu dute gose grebalariek. Goierriin dauden 28 presoak, 18 kartzeletan daude sakabanatuak. Hauetako 7, Estatu Frantziarrean, 20 Estatu Espainiarrean eta bat Euskal Herrian. "Dispersioaren ondorioz, preso dauden goierritar hauen senideek 9.828 km. egin be-



har izaten dituzte astero beraien etxeak kristal baten atzetik 40 minutuz ikusi ahal izateko. Bidai hauek diru eta giza bizitza kostuak dakarzielarik. Orain arte, 7 senide eta lagun hil dira bidai hauetako errepi-de istripuetan".

Era berean, zigorraren 3/4 beterik dituztenak kaleratzea ere eskatu dute. 6 preso goierritarrek kalean egon beharko omen lukete: Eugenio Irastorza, Antxon Garcia del Molino, Agustin Kortés, Arantxa Karrera, Joxe Goikoetxea eta Jokin Zubeldia. "Zer dela eta bahiketa hauek? 4 eta 2 urte daramatzate kondena bete ondoren, legezko askatasunik gabe".

Azkenik, gaixotasun sendaezinak dituzten presoek askatasuna exigitu dute. Joxe Goikoetxea atundar presoaren egoera salatu dute, "bere gaixotasun sendaezina dela eta egoera ja-sangaitza bizi duelako".

Agiria irakurri ondoren, Joxe Migel Azurmendi preso ohiak, dispersioak suposatzen duena azpimarratu zuen. "Presoentzat gogorra da bakarrik egotea, baina etxeontzat astero horrelako bidaiak egitea oraindik ere gogorragoa. Euren eskubidea etxetik gertuen dagoen kartzelan egotea da, Euskal Herrian". Kanean egiten diren era honetako ekimenek indar handia ematen omen die kartzelan daudenei.

Mikel Mendizabal bertsolariak bere aldetik, prentsaurreko honetan 3 bertsolari goierritar bakarrik egon baziren ere, ekimen honekin bat egiten dutenak beste asko direla azpimarratu zuen, lanagatik edo ikasketengatik ezin etorri izan zutenak. Era berean, "bertso plazetan presoek gaia aipatzen saiatzen bagara ere, plazatik kanpo horrelako ekimenetan parte hartzea ere oso garrantzitsua da".

Epaiaketa

Abenduaren lehen hasita, 4 goierritar epaituko dituzte Madrilén, hainbat sabotai ekintza egitearen akusaziopean. Epaituak hauek dira: Oskarbi Jauregi, Urko Gallarraga eta Iker Atxotegi zaldibitarak; eta Argider Mujika lazkaotarra.

Senideak-en manifestazio isila

Senideak elkarteak (presoen senditarkeoen elkarte) antolaturik, abenduaren 6an, Ordiziatik Beasain manifestazio ixila egingo da, arratsaldeko 6.00etan, 'Euskal presoak Euskal Herria' lelopean.

Beasain-Durango

Beasain-Durango errepidearen lanak aurrera doaz. Ormaiztegarainokoak eginda daude, baina Ormaiztegitik Bergarara bitartekoak, geldirik egongo dira urtebetez. Datorren urteko Gipuzkoako Diputazioaren aurrekontuan ez baita lan hauetarako dirurik agertzen.

Joxe Azurmendi

Zegamarrak Irun Hiria sari-ko saiakera ataleko saria irabazi du, 'Teknikaren meditazioa' lanarekin. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo teknikari buruzko gogoeta egiten du Joxe Azurmendik.

Drakula gaua

Goieniz Zine Klubaren eskutik, Drakularen gaua

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

Sasieta zabortegi egokitzeko inbertsioak aurrera doaz

Deba Garaiko eta Tolosaldeko zaborrak Sasieta zabortegira ekartzeko hitzarmena sinatzearen truke, Sasieta egokitzeko hainbat inbertsio egiteko konprometua hartu zuen Gipuzkoako Diputazioak. Inbertsio guztiak ere, Europar Batasunaren homologazioa lortzeko bidean. Lehen pausoak hasi dira ematen.

Joan zen azaroaren 17an, zaborra trinkotzeko makina berria aurkeztu zuten: 'Carterpillar 826G zabor trinkotzailea'. Bere arloan dagoen makinari berriena da, Estatu espainiarrean bat besterik ez dago. Oso-osorik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu du: 58 milioi pezeta.

Trinkotzaile berri honekin, zabortegiaren bizi-iraupena luzatuko da. Izan ere, trinkotzaile berriak 33.350 kiloko pisua baitu, orain artekoaren bikoitza. Pisu desberdintasun honi horts trinkotzaileak eta lan egiteko era gehituz gero,



1.000 kg/m³-tako dentsitateak lortzeko aukera izango da.

Makina honez gain, ari dira beste lan batzuk egiten zabortegiaren inguruan. Batetik, sarbidea; tunela zabalduko dute. Trenbidea gainera pasatzen denez, tunela kanpoan egingo dute eta ondoren, 'inka' moduan txertatuko dute. 117 milioi pezetako aurrekontua da. Uraren iragazkaitze lanak ere ari dira egiten. Zabortegitik barrena datorren ura depositu batean biltzen dute, ondoren Azpeitiako

araztegira eraman, garbitu eta berriz ere errekaratatzeko. Horretarako 30 milioi gastatuko dira.

Azkenik ere, datozen egunetan, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetako ontziak sailkatzeko lehengo instalazioa zabalduko da, Legazpin, 80 milioiko inbertsioa egin ondoren. Lazkaon, Ordizian, Olaberrian eta Beasainen martxan jarritako ontzien bilketaren esperientzia, Gipuzkoa osora zabalduko da.

GOTen azken afaria

Goierriko Objetore Taldea desagertzera doala eta, azken afaria egingo dute, gaur, azaroak 28, Ordiziako Gaztetxean. Prestatu duten egitaraua honakoa da: **20:00etan**, gaztainerreak; **20:30etan**, antzerkia; **ondoren**, txalapartariak; **21:30etan**, afaria eta bertsoak; eta **azkenik**, hileta ospakizuna eta ondasunen banaketa.

Afarirako txartelak 500 pezetan daude salgai, Ordiziako Herriko eta Leizea tabernetan eta Gaztetxean, eta Beasainen Arrano eta Basakana tabernetan.

Jokin Mujika

Jokin Mujika itsasondorria izendatu du Euskadiko Federazioak, Elite eta Sub'23 mailatako Euskadiko ziklokros hautatzailea. Mujika ziklo-krosean urte askotan aritu izan zen, eta Espainiako hautatzaile postua ere bete zuen epe labur batean.

izango da abenduaren 4an, Beasaingo Usurbe Antzokian, gaueko 9.00etan. Bi filme izango dira: 'Nosferatu, el vampiro' eta 'Las novias de Dracula'. Zuzeneko musikaz girotuko dute besteak beste, Pello Irizar, Pello Remirez. Drakularen gau berezia abenduaren 18rako zegoen iragarria, baina azkenik, Goienizekoek jakitera eman digutenez, azkeneko bi saioak egunez aldatuko dira: abenduaren 4an, Drakularen gaua eta abenduaren 18an, 'Los amantes del Pont-Neuf'.



Iberdrolak 11 garaipen

Iberdrola txirrindularien afizionatuen taldeak denboraldia bukatzean urteko balantzea egin du. Hauak, pasa den denboraldian 11 garaipen lortu dituzte. Hauz gain, 15 aldiz 2. izan dira, 15 aldiz 3., 12 aldiz 4., 20 aldiz 5., 4 aldiz irabazi dute taldeka eta beste 4 aldiz mendiko sailkapena. Denboraldi hasieran espero zuten bezala ondo ibili baziren ere, erdi aldera behe-

rakada bat izan zuten hainbat arazo direla medio, lesioak, 2-3 txirrindulariek taldea uztea..., baina hala ere denboraldi bukaera ona egin dute. Aipatzekoa da Mundial aurreko erlojuaren aurka Alegiko lasterketa Elizburuk irabazia.

Pello Garaialde, Xabier Aldanondo eta Joxe Andueza zuzendariak, datorren denboraldia-ri begira, txirrindulari gutxiago eta gazteagoak izango dituzte. Aurten 100 lasterketa egin dituzte eta denetara iristea zaila izan delako hartu dute erabaki hau. Etorkizun handiko talde honetan, Beñat Garaialde beasaindarra izango da Goierriko ordezkaria.

'LAREOREN ALDEKO EKIMENA'-k MENDI-MARTXA ANTOLATU DU IGANDERAKO:

"20 lanposturengatik ezin da Lareo inguruan horrelako txikiziorik egin"

Ataungo Lareo inguruko Maumendi basoan egin asmo duten turismo-gunearen aurka, 'Lareoren aldeko ekimena' plataforma sortu da. Jendea sentsibilizatu nahi dute eta horretarako lehen ekintza, azaroaren 30erako antolatu dute: Lareora mendi-martxa.

GOIERRITARRAren 123. alean argitaratu genituen turismo-gune honen proiektuaren xehetasunak. Proiektua aurrera doanaz kezkatutik, "mendiarekiko sentsibilitate piskta bat duen jendea" bildu eta 'Lareoren aldeko ekimena' taldea sortu da, "inongo zentzu politikorik gabea". Ekimen taldeko kide batek adierazi digunez, "egin behar duten astakeria hau salatzen dugu, ikusita zein lekutan dagoen, ikusita asmo honen atzetik zer dagoen. Saldu dena lanpostuena izan da, Ataun suspertzeko bide batean sartu behar dugula.... Lanpostuei garrantzia gehiago ematen zaio, ingurugiroari baino. Lanpostuak sortuko balira ere, ikusi egin beharko litzakete zein baldintzarako lanpostuak izango liratekeen".

Lanpostu horiek ingurugiroari hainbestera kalte egin gabe sortzea posible dela uste dute 'Lareoren aldeko ekimen'eko kideek. Zerain edo Nafarroako Baz-



Arbasoekiko etena

Balore hori ere azpimarratu nahi izan dute taldekoek. "Gure arbasoek Aralar utzi diguten bezala ez dakigu ondorengoei uzten. Hori da gaur egun aldarrikatu behar duguna. Muga jarri behar dugu: gizakiaren eraginetik babestu beharreko eremuak betirako babesteko sentsibilitate hori transmititu behar dugu. Eta ez, gaur behar batzuk ditugu eta behar horietara egokitu. Aralar momentu honetan ez dago gaizki, eta nik uste saiatu behar dugula hemendik beste 2.000 urtera Aralar horrela mantentzea. Aralar guztion ondarea da".

tan eskualdea hartzen dituzte adibidetzat. "Bai Zerainek eta bai Baztanek, horrelako turismo-gune handirik egin gabe, dauzkaten errekursoak edo baliabideak aprobetxatuz erakartzen dute turismoa, bertako turismoa".

Proiektuari aurka egiteko dauzkaten arrazoi nagusiak hauek dira: "Udalak eskatutako txostenak, ingurugiroari dagokiona, oso azalekoa da. Kalteak ikusteko daude. Arazorik handiena urarena da, kutsadura handia izango da; bertako fauna ez dugu ezagutzen eta kaltea handia izango da, zikloa hautsi egingo litzateke; kutsadura akustikoa ere handia izango, jendea Lareora bake bila joaten da; azpiegitura hobetzearekin batera, jende asko joango da

egun pasa Lareora, astebukaera pasa doazenez gain; bidea ere konpondu edo zabaldu beharra dago derrigor, mendiari zati handi bat kenduz". Ikerketa sozio-ekonomikoaren ondorioetan ez dute sartu nahi, "ez baitago inongo justifikaziorik Lareo inguruan egin behar duten astakeriarentzat".

Proiektua aurrera doa, eta ekimen taldeak gelditze-ko eskatzen du. "Udalak ez dio Lareoko turismo ekimen honi baiezkua esan. Baietz esan diote Ataunen horrelako ideia bat garatzeko asmoari, momentu honetan Lareon dago diseinatua, beraiek nahiago dute beste leku bat, baina, beste biderik ez baldin bada, eta Lareon egin behar bada, baiezkotan daude".

Dena den, 'Lareoren aldeko ekimena' taldeak ez dio turismo-guneari ezezko borobilik eman nahi. "Gauzak ondo ikusi nahi ditugu. Ez gaitetzen itsutu lanpostu horiekin".

Mendi-martxa

Sentsibilizaziorako eta jendearengana iristeko, Lareorako mendi-martxa antolatu du 'Lareoren aldeko ekimena'-k, iganderako, azaroaren 30erako. Goierritar guztiei egiten die dei ekimen honetan parte har dezaten, "Aralar zaindu behar dugunak geu garelako". Goizeko 10.00etan San Martingo plazan elkartu, autoz Urkilla garaino joan eta handik oinez joango dira Lareora. Arantzadi Zientzia elkarte-ko kideak eta Fermin Leizaola antropologoa izango dira, inguruak duen garrantzia azaltzeko. Leizaolak Lareo inguru horrek zein garrantzia izan duen Ataunengan, Ataungo biztanleak inguru horretan izan duen zeregin-a... azalduko ditu.

Lareo Aralar Parke Naturalerako zatia da. "Parke Naturalak izendatu ziren, zer edo zer babestu beharra zegoela ikusten zelako. Gaur egun balore horiek oraindik ere hor daude, baina arauak aldatzeko prest daude. Proiektu hau aurrera eramanez gero, erakunde-enganako sinismena, lehen ere handia ez baldin bada, pikutara joango da. Turismo-gune honi baiezkua emanez gero, atzetik etorri-ko diren gainerako proiektuei bidea irekiko diote".



Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

BEASAIN

- ▶ CARNICERÍA OLANO
SANTA MARIA, 3
- ▶ CARNICERIA IÑAKI ZUBELDIA
MAYOR, 14
- ▶ PEIO HARATEGIA
MARIARATS, 2
- ▶ CARNICERIA JOSÉ MANUEL DEBA
JUAN XXIII, 3
- SUPER ARMENDARIZ
AVDA. NAVARRA, 9

-JOSE HARATEGIA

JOSE M^a ITURRIOZ, 1

-SALTSAMENDI HARATEGI-URDAITEGI
IGARZA OLETA, 12

ATAUN

-ERAUSKIN HARATEGIA
ELBARREN, 32

SEGURA

-HARATEGI-URDAITEGI GOIKO EROSLE
ZURBANO, 8

IDIAZABAL

-LUIS MARIA HARATEGIA
KALE NAGUSIA, 16

ORDIZIA

-LUISA MUNDUATE HARATEGIA
SANTA MARIA, 23

-LASA HARATEGIA
EUSKAL HERRIA, S/N

-EZEIZA HARATEGIA
MAYOR, 29

OIRMAIZTEGI

-CARNICERÍA IÑAKI CAMPOS -EROSLE
ZUMALAKARREGI, 24

•Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri batez (▶) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

Nikolas Zeberio eta Manu Olano, Bertsolari txapelketako gaiak tajutuz

Euskal Herriko bertsolari txapelketan gaiak jartzen dituen 7 laguneko gai-jartzaile taldea dago. Nikolas Zeberio Itsasondoko bertsolari ohia eta Manu Olano Ordiziako Jakintza ikastolako zuzendari altzotarra taldeko partaide dira. Bertso-saio batean, eta are gehiago, txapelketa batean gaiak duen garrantzia kontutan hartuta, beraiekin izan gara gaiak jartzeko prozesua gertuagotik ezagutzeko asmotan.

Maiatzean hasi ziren aurtengo Bertsolari txapelketa nagusirako gaiak pilatzen, Euskal Herri osoan dauzkaten laguntzaileei esker. Gaiak, ideiak jaso eta irailen, gaiak sailkatzen hasi ziren. Bi sailkapen mota egin zituzten. Batetik, finalerako, finalaurrekoetarako eta final laurdenetarako gaiak sakabanatu zituzten, ordena horretan. "Gure ustez, gairik onenak, finalerako jar-

tzen ditugu. Irailerako bagenekizkien finalean zein gai izango diren, gutxi gora-behera, nahiz eta azkeneko momentuan hainbat gai aldatu, askotan gai batzuk pasatu egiten baitira", dio Manuk. Bigarren sailkapen batean, ariketa ezberdinetarako gaiak aukeratu zituzten. Gauzak honela, laguntzaileek bidalitako gaiak, egokitu, moldatu, orraztu... dituzte etengabe. Azken orrazketa, saioaren bezperan egiten dute, "gaurkotasunezko gairen bat sartu behar baldin bada, zerbait moldatu...". Gaurkotasunezko eta lekuan lekuko gaiak jartzen saiatzen dira.

Ariketa bakoitzeko gaiak zailtasun berezia izaten du. Nikolasentzat, "hasierako puntua jartzea da zailena. Bertsolariarentzat ariketarik zailena puntuari erantzutea da. Lan handia eskatzen du horrek". Manuk gaineratu duenez, "ofiziotariko gai bat jartzen denean,



esaterako, gauza asko begiratu behar dira: biak badaukaten zer esana, nahiko arrazoi, gaia orekatua den... Horiek denak aztertzen ditugu, gero ez dakigu asmatzen dugun baino. Bakarkako lanei arreta berezia eskaintzen diegu. Kartzelako gaia 3 aldiz entzuten da eta saiatzen zara sujerentea izan dadila".

Asmatzea zaila

Asmatzea zaila izaten omen da, zein gai izango ote den ona ala txarra. Nikolasen esanetan, "guk ere egiten ditugu gure apustutxoak; gai honek baietz eman...

Zein bertsolari tokatzen zaion, alde handia dago. Gu gaia jartzen aritzen gara baina ez dakigu nori egokituko zaion. Gai batzuk nahiko nabarmenak izaten dira, ustez. Beste batzuk, askotan, dudakoak. Ustez gai bat oso ona jarri eta ez du ezer eman; eta alderantziz".

Gai-jartzaileak gaia eman eta bertsolariak ezinean ikusteak ere ematen die burukomunik. "Batzutun nahiko gaizki pasatzen dut. Gai horiek buelta asko emanda izaten ditugu; hemendik irten daiteke, handik ere bai, hau esan daiteke... Bertsolariak bat-batean entzuten dute eta segundu gutxitan bota behar dute bertsoa. Gu ez gara pertsonarik egokienak bertsolarien lana baloratzeko. Askotan ezinean dabiltzala, edo gaiari zukurik atera ez dionean, kulpabilidade zentzu bat izaten da", dio Manuk. Zortearen kontua ere ba omen da Nikolasen esanetan. "Gai zail xamar

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

AURRE ZITA
☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

Urdaneta, 41

ORDIZIA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

☎ 161606



Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala

Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iridologia,
homeopatia eta abar-en aditua

☎ 88 13 37

Kale Nagusia, 8

ORDIZIA

bat jarri eta hari tokatu behar! pentsatzen dugu askotan. Hori ez dago gure esku. Saio batean gaiak pisu handia du, handiena agian”.

Txapeldun aterako denak, ordea, gai guztiak menperatu beharko omen ditu. “Maila horretan oreka dago gaien artean. Finalerdietan 18 bertso kantatu behar dituzte. Suerte txarra behin izango du, baina 18 bertsoetan suerte txarrik ez du izango. Finalean 26 bertso kantatu beharko dituzte, eta gai aldetiko suertea baino gehiago beharko du txapeldunak. Epaimahaia ere hor dago noski”, dio Manuk. Gaienez gain, bikote lagunak eta norberak daukan egunak ere zerikusia handia izaten du. “Biko-teak zerikusi handia du; batzuk bidea irekitzera joaten dira eta beste batzuk ixtera”, azpimarratu du Nikolasek.

Zigorrik ez

Itsasondoarrak garbi dauka hala ere, “txapelketan gaiak ez dira jarri behar bertsolaria zigortzeko, bestela ere nahikoa lan izaten dute eta. Txapelketara bertso onak entzutera joan behar dugu;

lan erraza jarri eta kalitatezko bertsoa entzutera. Plazan agian jar daitezke, bertso txarra botaz gero garrantziarik ez daukalako”. Manu ere iritzi berekoa da. “Zailtasun ezberdineko lanak egin behar dituzte bertsolariek. Berez, zailtasun asko dauzkate eta gaiak zailak jarritik gero...”.

Bertsolaritza eta bertsozalea aldatzen ari da. Manuren esanetan, “txapelketan entzule asko gaztea da, formazio bat duena... gu aha-legintzen gara gaiak zabal-tzen, eta ez ditezela esparru batekoak izan. Hori entzuleak eskertzen du. Lehengo gaietan, mutil zaharrak eta neska zaharrak, hamarretik zortzi izaten ziren. Gaur egun hori zabaldu egiten da”.

Orain arteko txapelketa-ko gaiekin nahiko gustora daude. Balorazio eta hausnarketak, ordea, txapelketa amaitu ondoren egin dituzte, bertsolariek eta bertsozaleek.

Inspirazio iturria

Bakoitzak bere inspirazio iturria izaten du gaiak sortzerakoan. Nikolasek berea

kontatu digu: “arkatza eta papera poltsikoan erabili, eta egunean zehar ikusten dituzun bitxikeria, xeleb-keria... guztiak apuntatu. Astia daukazunean, landu. Papera hartu eta gaiak asmatzen jarritik gero, ez da ezer ateratzen”. Manuk ere antzekoa dauka: “Egunean zehar, ikusi, entzun, irakurri... duzunak bidea ematen dute gaia idazteko. Beste batzutan bilatu ere egiten dira. Leku edo egun jakin bateko gairen bat jarri behar denean. Zarauzko saioan adibidez, hondartzako gaia jarri genuen”.

Gai egokiak jartzea zaila dela azpimarratu digute el-karrizketa osoan zehar biek. Gai on bat jartzea ala bertso txar bat botatzea zein ote den zailago galdetu diegu. Manuren esanetan, “ez dago konparaziorik: bertso txar bat botatzea. Bertsoa, bat-batean, segundu gutxi-ren buruan, jende asko aurrean duzula bota behar da. Gaia beste patxada batekin jartzen da, nahi adina den-bora hartuz”. Nikolasek ere halatsu dio. “Bertsolari askok ez dute balio gai onik jartzeko. Bakoitzak berea:

bertsolariek bertsoak eta gai-jartzailleek gaia jartzea”.

Goierritarrak txapelketan

3 goierritar bertsolari ditugu finalurrekoetan. Joan zen igandean, Igorren, Iñaki Murua aritu zen. 785 puntu lortu zituen, finaletik urruti gelditu zen. Igandean, Beasainen, Mikel Mendizabal eta Aitor Sarriegi izango ditugu.

Finalean izango diren 8 bertsolariek asmatzeko kienielak egiten ari dira batean eta bestean. Gu ere saiatu gara, baina ez dira ausartu 8 izenak ematera. Manu: “Egaña. Hortik aurrera edonor izan daiteke, nahiko zirrikitu gutxi dago. Nahikoa meritu badaukate finalean egon edo atari-atarian gelditzen direnek. Tropelean egoteak nahikoa esan nahi du eta suertea izanez gero finalean egon daitezke. Goierritarren bat egongo da, eta agian bi”. Nikolas: “Egaña eta Lizaso seguruak dira, baina hortik aurrera auskalo. Gaiaren arabera, egunaren arabera... edozein sar daiteke”.

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



- Jkastaroak
- Esku lanak
- Opariak
- Enkarguzko lanak

© 65 55 77

Nafarroa Etorb. 10
TOLOSA

© 88 40 56

Andra Mari, 5
BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

Koke Lasas: gailurretako ormaiztegiarra

Manaslu mendia igo berria du Koke Lasak.

Berak igotzen duen 8.000 metrotik gorako 3. mendia da eta Munduan dauden altuera hortako 14 mendietan euskaldunik ezagutzen ez zuen gailur bakarra. Orain etxean da, Itsasoko Urteaga Haundian, izan zituen izozketetatik sendatzen.

- Zer moduzko igoera izan zen Manaslukoak?

- 12 egunetan 3 kanpamendu montatuta genituen, nahiko azkar. Baina eguraldiak, haizetsua eta azken boladan elurtsua, asko gogortu zuen mendiaren igoera eta jeitsiera.

Teknikoki ez dauka arazo handirik. Elur-jausiengatik arriskutsuaren fama zuen mendiak, hasierako glaziarra ere oso pitzatua eta zulo askorekin zegoela esaten zuten, eta gu beldur horrekin joan ginen. Topatu genuena ez zen hain txarra izan, glaziarrek ez zuen arazo handirik eta elur aldetik ez zegoen batere kargatua. Ondo zegoen ibiltzeko eta arriskurik gabe, gero egindako elurrarekin agian jarri zen okerrago. Horregatik egin genuen hain azkar.

- Orduan jeitsiera izan zen gogorrena.

- Gailurra egin genuen egu-

nean ni tripetatik gaizki nebilen eta piska bat atzera geratu nintzen. Aurretik nere taldeko hirukotea eta atzeagotik beste 3 eslovakiar. 3. kanpamendura ilunduta iritsi nintzen baina inongo susmo txarrik gabe, burutik ere ez zitzaidan pasatu bibak bat egiteko aukera, kanpamendua banekien hantxe zegoela eta iritsi egin behar nintzela. Hotz handia egiten zuen eta dendara iristean konturatu nintzen ezkerreko eskuko bi hatz gogortuta nituela. Bainu bat hartu nuen eta hurrengo goizean hiru baba nituen. Hori banekeen ondo babestu behar direla, gehienetan gaiztotu egiten baitira. Hori dela eta, eskularruak kendu gabe ibili nintzen eta ez nintzen hantzekin ezer egiteko gauza, beti besteen menpe.

Eslovakiar bat ez zen kanpamendura iritsi eta han nonbait geratuko zela pentsatu genuen. Gau hartan elur asko egin zuen, denok nekatuta geuden eta ni konjelazioekin nahiko 'inutila' sentitzen nintzen. Behera bidean beste eslovakiarra han goian gelditu zela ikusi genuen eta ez zela mugi-



Neri disfrutatzea gustatzen zait, joan aurretik badakigu honen arriskua ere badagoela, baina konpentsatzen du. Ni berriz joango naiz mendira, baita Himalaya aldera ere, ez dakit noiz, baina joango naiz.

- Iozketek zein tratamendu behar dute?

- Nereak azalekoak dira, baina gaitza

eginda dago, handik gaitzarekin etortzen zara, hona etortzean garapena ikusi behar da, nik kolore ona nuen, babak bakarrik nituen. Azalekoa izanda ahalegina egin behar da ez ditezten lehertu, ospitalean egonda ere gaiztotzeko arriskua baitago. Egunero ur berroxamarrean eta iodoarekin bi bainu eta medikamentuak hartu. 25-30 egunetan azala lehortuta dago, hilda, titare bat bezala gogor-gogorra. Ondoren azala kentzen da eta alde-rantzizkoa da, oso sentikorra egoten da eta edozer gauza ikutu eta mina egiten du. Piskanaka azala egin eta azkazalak ateratzen joaten dira. Denbora asko behar da. Iozketak sakonak direnean, moztu beharra dagoenez oraindik luzeagoa eta gogorragoa da.

- Hainbeste sufritzeak merezi al du?

- Nik orainarte mendian disfrutatu egin dut. Bai, piska bat sufritzen da, baina, oraingoan bezala inoiz ez.

za eginda dago, handik gaitzarekin etortzen zara, hona etortzean garapena ikusi behar da, nik kolore ona nuen, babak bakarrik nituen. Azalekoa izanda ahalegina egin behar da ez ditezten lehertu, ospitalean egonda ere gaiztotzeko arriskua baitago. Egunero ur berroxamarrean eta iodoarekin bi bainu eta medikamentuak hartu. 25-30 egunetan azala lehortuta dago, hilda, titare bat bezala gogor-gogorra. Ondoren azala kentzen da eta alde-rantzizkoa da, oso sentikorra egoten da eta edozer gauza ikutu eta mina egiten du. Piskanaka azala egin eta azkazalak ateratzen joaten dira. Denbora asko behar da. Iozketak sakonak direnean, moztu beharra dagoenez oraindik luzeagoa eta gogorragoa da.

- Zer suposatzen du Manaslu igotzen duten le-



ITSASO
apaindegia

San andres, 31 ☎ 88 06 24
ORMAIZTEGI

ILEAPAINDEGIA

- ✗ Azken teknika eta estiloak
- ✗ Tratamendu bereziak: ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA

- ✗ Depilazioak, elektrikoa
- ✗ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- ✗ Masaiaik eta solariuma

Baita ere ilean behin sendagilea, M. Esteban (6.180): gizentasuna, barizeak, meroterapia, e. a. *Kontsulta ezazu*

hen euskaldunak izate-
ak?

- Ez ginen itsututa joan eus-
kaldunok igo gabeko azken
8.000koa zela eta igo beha-
rra genuela pentsatuaz.
Nahiz eta mendi bezala ha-
sieran ez gehiegi erakarri,
besteetan baino aliziente
gehixegorekin joan ginen
eta berriak ere hedapen
gehiago izan du.

- 14 8.000koak lortzea
burutik pasa zaizu.

- Ez, horretarako denbora
eta diru asko behar da, oso
zaila dago. Juanito hortara
erabat zentratuta dago, pa-
trozinatzaile bat dauka. Me-
dioek asko begiratzen diote
8.000koei, txikiagoak nahiz
eta zailagoak izan ez dira
baloratzen. Hor dago, gus-
tatu ezker mendira joateko
bide bat da, baina, behartuta
urtean 2 edo 3 espedizio
egitea gehiegi iruditzen
zait, oso estresantea. Nik
itzultzeko asmoa badut, adi-
bidez polita izango zen
Everestera joatea, agian
beste norabaitera ere bai,
baina 14ak ez.

- Mendi zer da afizioa
edo ofizioa?

- Ni nere lanbidearekin oso
gustora nago eta ez dut

planteatu ere egin menditik
bizi izatea. Neri ofizio eta
konpromiso bezala oso es-
tresantea iruditzen zait.
Nahigo dut nere lana izan
eta ahal dudanean mendira
joatea. Arazoa izaten da
batzuetan lanean baimena
eskatu beharra dagoela. Nik
ez dut arazo handirik, bi ur-
tetik behin 3 hilabete solda-
tarik gabe hartzeko eskubi-
dea baitugu. Espedizioa an-
tolatzeak lan handia ematen
duela. Entrenamenduek ere
denbora asko kentzen dute.
Eguneroko entrenamendu
bat dago, seriek egiten, ko-
rrika, gimnasia, Aizkorri eta
Txindokin igo eta jeitsi des-
nibelak egin...

- Orain zein asmo duzu?

- Lehenik sendatzea. Gero
ez daukat batere garbi, plan
bat dago uztailerako baina
dudatan nago joan ala ez.
Izozketa, familia, urte de-
xentetan ari naiz ateratzen...
Dena dela urte batean ez ba-
da beste batean joango naiz.
Everestera joango nitzateke
baina patrozinadorea aukitu
behar da eta zaila dago.
Everest ez da nere betiko
ametsa izan baina, egin du-
dana egin ondoren gogoia
dut joateko.



Pauso motzean

- Zein da igo du-
zun politena?

- Alpamaio oso polita
da. Baina, Hidden
Peak izan da alpinis-
tikoki gehien gustatu
zaidana.

- Inguruko mendi
gustokoena?

- Aizkorriin asko ibilt-
zen naiz, batez ere

elurra badago lanetik atera eta kanaletatik igotzea gustat-
zen zait. Etxe inguruan Kizkitza, Izazpi inguruetan astean
3-4 aldiz ibiltzen naiz.

- Elurra, harkaitza, belardia?

- Ni elurretan eta izotzetan ibiltzen naiz gustoen.

- Zuretzat zer da mendia?

Askio betetzen nau mendiak. Denboraldi bat joan gabe ba-
nago gorputzak eskatu egiten dit.

- Noiz igoera bat telebistan zunenean?

-.Medioak asko ari dira aurreratzen, nork esan behar zuen
orain dela gutxi telefono eta guzti joan behar ginela. Adi-
bidez, Everestekoek interneten bidez egun berdineko ar-
gazkiak bidaltzen zituzten.

- Mendiko lagunak benetako lagunak al dira?

- Nere mendiko betiko lagunak benetako lagunak dira. Be-
ti oso harreman onak egin ditudan arren gertatu zait beste
batzuk nola haserretzen diren ikustea ere. Espedizio batean
era guztietako jendea topatu dezakezu.

- Mendi eta familia zer moduz ezkontzen dira?

- Nik horretan zorte handia dut, neri emazteak animatu eta
guzti egiten nau. Gero badakit hemen beti tokatzen zaiola
sufritzea, kezkatuta egotea.



Iñauti Industrialdea, 1

☎ 88 77 55

Faxa: 88 34 31

OLABERRIA

LORIÑON



SAGARNA



ARRANDEGIA

☎ 88 68 73 (denda)

☎ 16 02 01 (etxea)

Zumalakarregi, 4

ORMAIZTEGI

MURUA harategia

● Bertako haragia

● Odolki eta
txorizoak



Maiores plaza

ORMAIZTEGI

☎ 88 27 64

*Ospatu Eguberriak Mun-
dialeko ardoarekin*

● 'Iberikoak',
gastak, foie-ak

● Errioxako
ardoak eta
kabak

San Andresen aitzakian, festak Ormaiztegin

Azaroak 28, ostirala:

18:00etan: Mus txapelketa jubilatuen elkartean.

18:30etan: 1997ko festei hasiera emanez suzirien jaurtiketa.

19:30etan: Herriko txistulari eta trikitilarien pasakailea, buruhandien laguntzaz.

23:00etan: Herriko rock taldeen kontzertua herriko enparantzan, Udalak antolatuta, Gazte Asanbladaren laguntzaz.

Azaroak 29, larunbata:

12:00etan: Umeen danborrada herriko kaleetan zehar, Tximeleta txarangak alaiturik.

15:00etatik 17:00etara: Zumagazte kide ormaiztegiarrek, museoa erakutsiko diete nahi duten guztiei.



18:00etan: Txindata Musika eskolako trikitilarien kalejira, beste hainbat herriko trikitilariekin batera.

19:00etan: Mozorro desfilea, dantza eta sari-banaketa Zubipe kiroldegian.

23:00etan: Su artifiziak, Astondoa pirokteniaren eskutik.

23:30etatik goizalde-rarte: 'Joselu Anaia' taldearen kontzertua, Zubipe kiroldegian.

3:00etan: Euskaraokea Itxune ondoko aparkalekuan.

Azaroak 30, igandea:

11:00etan: Umeentzako parkea egun guztian zehar herriko enparantzan.

11:00etan: Meza Nagusia Ander Deunaren omenez.

Jarraian: Donostiako Easo abesbatzako Eskolaniaren kontzertua.

12:00etan: Kadete eta Jubenilen XXXIII. San Andres Ziklo-kros saria.

11:00etatik 13:30etara: Odolkien osagaien azoka eta lehiaketa Berjaldegi enparantzan.

13:30etan: XI. Odolki lehiaketa: sari-banaketa eta dastaketa Barduliarrek elkartean.

18:00etan: V. San Andres Pala txapelketaren finala Zubipe kiroldegian.

19:30etan: Goruntz dantza taldearen saioa.

00:00etan: Gazteen danborrada, Tximeleta txarangak alaiturik.



Comercial MARKEL

Zumarralde, 2
Tfnoa - faxa:
161556
ORMAIZTEGI

- ✗ Iturgintza eta elektrizitatea
- ✗ Berogailuak
- ✗ Burdindegia

ELEKTRAGAILU DENDA

ARANTXA

taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13

Tfnoa.: 88 28 22 ORMAIZTEGI



JOSETXO

San Andres, 31
☎ 882772 (etxea)
161366 (arrandegia)
ORMAIZTEGI

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Toki mugatua dagoenez eskaerak aurrez egitea komeni da.

On egin diezazula!

Berjadegi plaza z/g

☎ 88 28 93 ORMAIZTEGI

KEMEN

KIROLAK

Zumalakarregi, 1

☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI

ESTANKO

janaridenda

- ✗ Egunkari eta aldizkariak
- ✗ Opariak
- ✗ Eskolako gaiak
- ✗ Mertzeria

Festa onak pasa!

☎ 88 77 24

Serapio Mujika Plaza, 3

ORMAIZTEGI



MULTIOPTICAS

sei
hilabete^{tan}
begi bistatik kenduko
diguzu


Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.

• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
TRAVEL CLUB-
PROGRAMAKO
PUNTUAK



bi kutxatila
lentilekin
eta beste bi
soluzio bakarrarekin
15.000
pezetagatik
bakarrik



eta erloju bat opari

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Juan Carlos Guerra, 1 J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 76 15 75 Tel. 79 29 95 Tel. 88 99 88
BERGARA ARRASATE ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmalteria, 7
Tel. 51 78 11
ERRETERIA



IRIZAR



MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

San Andres 6-8 ORMAIZTEGI
☎ 80 91 00 Faxa: 88 91 01

GURE ESTRATEGIA:

BEZEROARI
ZERBITZATU ETA
BALIOA ERANTSI

GURE GILTZARRIAK:

KALITATEA
ZERBITZUA
KOSTUA
BERRIKUNTZA



FELIPE PRINTZEA
SARIA ENPRESA
BIKAINTASUNARI
95 eta 96 urteetan:
- Diseinu Industrial
(1995)
- Kalitate Industrial
(1996)



URTEKO
AUTOBUSA
94 URTEAN
BRITANIA
HANDIAN



URTEKO
AUTOBUSA
95 URTEAN
ESPAINIAN



JOSE ANTONIO VARELA, PRYCA GOIERRIKO ZUZENDARIAREKIN BERRIKETAN:

"Gure nahia Goierri inguruko produktuak bereziki indartzen da, bezeroak kalitatea eskatzen baitigu"

Sei hilabete dira Olaberrian Pryca Goierri zabaldu zutenetik. Bertako zuzendaria den Jose Antonio Varelarekin izan gara, eta ezarritako aurrikuspenak erraz betetzen ari omen dira. 217 lanpostu sortu dira Prycan bertan, eta beste 86 lanpostu zeharka.

- Zer moduz lehenengo sei hilabeteak Goierriin?

- Orain arte zentru komertzialaren eboluzioa positiboa dela esan dezakegu, ezarri ditugun aurrikuspenak erraz gainditu ditugulako. Dena den, nahiz eta 1979. urtetik Oiartzunen finkatuak egon, Goierriin oraindik piska bat gelditzen zaigu erabat sendotzeko.

- Zergatik egin zenuten Goierriren aldeko apustua?

- Lehenik eta behin, aurreko jabeek zentrua erosteko aukera sortu zitzaigulako. Bigarren, Goierri inguruan merkatu kuota interesgarria dagoelako. Eta azkenik, merkatu ikerketen arabera, Goierriko bezero oso leialak genituelako Oiartzungo beste zentruan, batez ere as-teburuetan.

- Prycak zer eskaintzen du?

- Prycak toki berean era guztietako erosketak egin ahal izateko aukera ematen du; janari, tresna, elektro



Jose Antonio Varela, zuzendaria.

eta ehungintza sailtako gama guztietan, aukera zabala garatzen baitu.

- Eskualdeko produktuak sustatzeko ahalegin berezia ari zarete egiten.

- Egia da; gure nahia Goierri inguruko produktuak bereziki indartzea da, horiek baitira gure bezeroek beraien kalitateagatik eskatzen dizkigutenak. Gure desioa baserritarrekin erosle-saltzaile erlazioa mantentzea da, aberastasun dinamika bat sortu ahal izateko; baserritarrek beraien salmentak indartuko lituzteke eta, era berean, guk beraien ganako erosketak.

Guzti horregatik sakonki lantzen ari gara beraien pro-

duktuen salmentetan erregulartasun bat izateko asmoarekin. Kalitatezko Labela eta Euskal Baserri produktuekin dugun bezalakoa.

- Zenbat lanpostu sortu ditu Prycak? Nongoak dira langileak?

- Momentu honetan, Pryca Goierriin dagoen lantaldea 303 langilez osaturik dago. Horietatik, 217 Prycako langileak dira, eta beste 86ak zeharkako lanpostuak dira. Langile gehienak Goierri ingurukoak dira agintari batzuk izan ezik; hauetatik batzuk Pryca Oiartzundik datoz eta besteak berriz, Prycako beste zentru ezberdinetatik. Ni adibidez, Pryca Oiartzundik nator.

- Zeri ematen diozue garrantzia gehiago: kalitateari ala prezioari?

- Dudarik gabe kalitateari ematen diogu garrantziarik handiena, batez ere elikagai saileko produktu galkorren kalitateari. Baina hala ere, ez dugu inoiz prezioa ahazten, gure beharra baita ahal dugun konpetitiboena izatea.

- Bezeroak merkatal-gunea igandeetan eta jaiegunetan irekitzea eskatzen al du?

- Ni natorren zentruan behintzat, bezeroek inoiz ez digute jaiegunetan irekitzea eskatu. Dena den, jaiegunetan ez irekitzeko ahozko hitzarmen bat dago sindikatuekin. Hala ere, gure lehia-kideek igande eta jaiegunetan irekitzea erabakiko balute, Prycak aukera hori hausnartu beharko luke.

- Komertzio txikia azalera handikoen kompetentziaz kexatzen da. Zein paper jokatzan du eta jokatu beharko luke komertzio mota bakoitzak?

- Merkataritza zentru bakoitzak, bere salmenta formula ezberdina du bere bezeroen nahiak asetzeko. Badira batzuk, sail konkretu batzutan espezializatzen direnak, beste batzuk, frankizia merkataritza bilatzen saiatzen direnak, edo eta, beraien erosketak batzen dituztenak, e.a. Gaur egun, Europa mailan, merkataritza goraka doan sektore bat dugu eta egoera ezkorak ez izatearren salmenta formula ezberdinak bilatu beharrean aurkitzen gara.



ORDIZIA

HBk Alkatearen aurkako salaketa



HBk prentsurrekoa eman zuen azaroaren 20an, Juan-bi Erauskin Alkateak Beasainen aholkularitza zerbitzu integral bat ireki duela salatuz eta hainbat gogoeta eginez. Era berean, alkateza uzteko deia egiten dio HBk.

Urriaren 9ko dataz, herriko merkatariak eskutitz bat jaso omen zuten, "Beasainen, enpresa ertain eta txikientzat sortutako asesori zerbitzu integral baten berri ematen zitzaien. Idatziak, Ordiziako Alkate eta beste pertsona baten sinadura zekarren", esan zuen HBko zinegotzia den Aitor Garmendiak. Era berean, urriaren 14an egindako Ogasun eta Administrazio Batzordearen azken puntuan honela dio HBren arabera: "Aztergaietatik kanpo, Alkate jaunak batzordekideei jakinarazten dienez, aholkularitza enpresa bat jarri du martxan Beasainen. Bere asmoa oraingoz Udalak uzten dion denbora ematea dela eta bere lana ordaindutakoa izango ez denez, bere jarduna Alkate kargua-

rekin bate-ragarria uste du. Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira".

Honen aurrean HBk hainbat go-

goeta, galdera, salaketa eta balorazio egiten du. Batetik, "1991. urteraino, lehenagoko alkateak, erdi mailako teknikari baten soldata erdia eskuratzen zuten. Urte honetan ordea, Juan Vicente Erauskinak, oraingo Alkateak, hartu zuen Alkateza eta Udal Batzarra, honen lana egun osorako eta soldata ere osoa eskuratu behar zuela erabaki zuen. Egun, bere hileko soldata gordina, 414.725 pezetakoa da", argitu du.

Horrekin batera, Alkate-

aren lan osoari buruz duen jarrera ere salatu dute. "Nola esan dezake alkate batek, bere enpresari ordu libreak eskeiniko dizkiola? Jarrera honekin ez al du murriztuko Udaleko lana, lehenagotik nahiko geldoa, akta ezberdinetan froga daitekeen?" Merkatariak banatutako propagandan egiten duen bere sinaduraren erabilera ere salatzen du HBk, "bere asesorira joaten direnentzat ez al da egongo tratu berezirik Udalaren alde?" galdetuz. "Ez al da bera onuradun gertatuko daukan informazio pribilegiatuagatik? Beste enpresetikiko konpetentzi desagokian ez al da sartuko, Administrazioarekin dituen lotura eta karguagatik?", gaineratu zuen Garmendiak.

Bere enpresa Beasainen jartzea ez dute gaizki ikus-

ten HBkoek, "beti esan baitugu eskualdea egin behar dugula. Etikoki, ordea, erabat desagokia deritzogu. Nola defenda dezake enpresak Ordiziara ekartzea edo eta bertan gelditzea? Ez al zaio interesatzen zerbitzu guztiak Beasaineratzea, bere bezeroak ugaritzeko?"

Gauzak honela, "Alkatearen kategoria politikoa ikusi ondoren, lehenbailehen, berehala, joan dadila eskatzen diogu, joan dadila Beasainera, utz dezala Alkateza Ordiziaren alde lana egin nahi duten jendearengan, makina bat badago eta, beraien interes pertsonalak utzita lana egingo lukeena", dio HBk. Udaleko HBko zinegotziek, gainerako alderdi politikoei gai honi buruz duten iritzia kale-ratzeko eskatu die.

Zinemaldia

Hitzaro Euskara Elkarteak antolatutako bideo emanaldi saioak agur esango digu azaroaren 29an. Egun honetarako 8-12 urte bitarteko haurrentzako 'Gremlins' filmaren lehen lana eskeiniko dute. Dakizuen bezala, saioa Barrenan izango da arratsaldeko 5.00etan. Hogei duoren truke ordu t'erdia atsegina pasatzeko aukera izango dute, beraz, gaztetxoek.

Aitor Calvillo



Jakintza Ikastolako 3. eta 4. mailako haurrek udazkenean sartzearrekin batera, Euskal Herriko tradizioekin gozatzeko aukera izan zuten. Eguraldia lagun izan zutela Oiangun elkartu eta taloak egiten ikasi, danbolinean gaztinak erre eta, noski, horiek jateko astia ere hartu zuten. Argazkian, Ximon maisuarekin batera gazteak danbolinari adi-adi begira.

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



PEUGEOT

AGENTZIA

SANTA ANA GARAJEA, S.L.

☎ 88 16 89 - ☎/Faxa: 88 08 67

Urdaneta, 74 - 76



ORDIZIA

BEASAIN

Montse Auzmendi pianojolearen kontzertua



Santa Zezilia, musikarien patroia eguna dela eta, hainbat ekitaldi eta kontzertu burutu dira azken hamabostaldian. Bihar bertan emango zaie amaiera ekin-tza hauei, Montserrat Auzmendi beasaindarraren piano kontzertuarekin. Udaletxeko Batzar Aretoan izango da, larunbat arratsaldeko 19:30etan.

Pianojole honek urte de-xente daramatza musika munduan eta bere ibilbidea azpimarragarria da. 11 urte zituenean hasi zen pianoa ikasten, Ordizian lehenik eta Donostiako Kontserbatorioan ondoren. Lehen sari garrantzitsua 1986an lortu zuen, Kutxaren Interprete Gazteen I. lehiaketan lehen postua lortuz. 1987an Piano Goi Mailako Karrera amaitu zuen, karrera amaierako lehen saria eskuratuz. Ondoren hainbat irakasle handirekin ikasia da, eta Parisen bi urte eman zituen bertako Kontserbatorio Nagusian.

Gaur egun Hernaniko Kontserbatorioan irakasle da. Gainera, Zuzenbide

ikasketak amaitzen ari da eta astia duenean erre-zitalak eskaintzen ditu, bai bakarlari gisa, bai orkestra-ekin. Bihar, hiru-garren aldiz joko du herrian. "Bere-zi xamarra izango da jende ezaguna-ren aurrean ari-tzea, baita ere ur-duritasunagatik. Urduri xamar leku guztietan izaten naiz, musikaz goatzera dato-rreren ikuslegoari

ikuskizun on bat emateko konpromezua dudalako".

Larunbateko egitarauari dagokionez, bi zatitan bana-tuko da. Lehenean, Chopi-nen bi obra, eta Prokofieven bat izango dira. Bigarre-ne-

an, berriz, Shuberten eta Brahmsen bana joko du. "Chopin en pianorako idaz-ker a oso berezia da, publi-koari asko gustatzen zaio eta neroni ere bai. Proko-fiev desberdina da, baina asko atsegin dut. Bigarren zatian, berriz, Franz Schu-bert eta Johannes Brahmsen urteurren az gogoratu naiz. Joko du dan Brahmsen obra oso gutxi entzuna da, jotze-ko zaila baina oso ederra da".

Musika klasikoaren ego-eraz herrian, zera digu Montse Auzmendik. "Oso zuzenean ez dut ezagutzen, baina Musika Eskolan lan ona egiten ari dela irudi-tzen zait. Eta hori da bide-rik onena txikitatik maila ona lortzea. Arazo handie-na kontzertuen falta da. Gainera, ez dakit zergatik,

baina Beasainen ematen di-ren kontzertuetan jende gut-xi ikusten dut... Espero dut jende gehiago biltzea larun-batea".

Bertsolari txapelketa

Igandean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako az-ken finalaurrekoa jokatu-ko da Antzizar kiroldegian, arratsaldeko 5.00etatik au-rrera. Bertan, Aitor Sarriegi izango dugu, eta berarekin batera beste 5 bertsolari hauek: Mikel Mendizabal, Jokin Sorozabal, Aritz Lo-pategi, Jesus Mari Irazu eta Oihana Enbeita.

Aitor ederki aritu zen le-hen fasean, nahiko erraz sailkatuz finalaurrekoeta-ko. Orain gauzak askoz zai-lago izango ditu, finaleko zortzikotean sartzea ale-gia.

Motzean

● Datorren asteartean, abenduak 1, odol ateraldia egingo da, arratsaldeko 6.30etatik aurrera, Ubi-etxe Odol Emaileen De-legazioan. Ohikoa den be-zala, emaile berriei gonbi-tea luzatzen zaie.

● Pasa den asteartean inau-guratu zen Beasaingo I. Euskal Liburu eta Disko azoka, eta iganderate iraungo du, Gernikako pa-sealekuan, eguerdi eta arra-tsaldeko ordutegian.

● Geure ikastolak San Ni-kolas eskea antolatu du, abenduaren 6rako, Euskal-dunon Egunkariaren alde. 19:0etan abiatuko da Ba-rrendain plazatik. Bertsolari eta trikitilariak lagun izango dituzte. Bukaeran, taloak eta sagardoa.

Aitor Arrue

Jokin Telleriaren pintura erakusketa

Iganderate ikusgai duzue Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoan margolari beasaindar honen erakusketa. Bilduma hau paisaiez osaturik dago; oleoz egindako pintura figurati-boa da, inpresionista eta kutsu klasikokoa.

Jokin Telleriak 40 urte ditu, eta Ataunen jaioa izan arren umetatik Beasainen bizi da. Oso gazte zela zaletu zen pin-turara eta 12 urterako lehen sariak lortu zituen. Baina laster lanean hasi beharra izan zuen eta pinturako ikasketa gore-nak egiteko aukerarik ez zuen izan. Geroago, Zumarragako pintore batekin ikasi zuen, eta geroztik bere kabuz ordu as-ko sartuz egin da margolari.

Gaur egun erakusketa batzuk egiten ditu, eta Miarritze eta Donostiako galerietan koadroak ere baditu, "tarteka zer-bait saltzen dut, baina ez da batere erraza". Erakusketetan ez omen da jende gehiegi ibiltzen. "Gero eta ikusle gehia-go joaten da, baina oraindik ohitura falta handia dago. Ea orain Guggenheimen inguruan sorturiko zurrunbiloa dela eta, bertara joateko aukerarik ez duenak behintzat, hemen-go erakusketetara sartzan animatzen diren".

Bestalde, Udal Pintura tailerreko irakaslea ere bada Jo-kin. "Jende asko gabiltza, 60-70 inguru, badirudi modan dagoela margotzea". Eta Goierrri mailan ere pintura osa-suntsu ikusten du. "Jende on asko dago. Agian herri mailan ez ezagunegiak, baina kanpoaldean sari garrantzitsuenak lortu dituztenak".

OLABERRIA

Zezipio-enea etxen bota dute



Zezipio-enea, Eliza parean zegoen etxea, dagoeneko desagertu da eta Kasko auzoko urbanizazio planen arabera gaur egun Udaletxe azpian dagoen Ostatu tabernan bertan eraikiko da. Baina Ostatu tabernaren kokaleku berriaz gain, aterpetxe bat egiteko asmoa ere agertu izan du Udalak, baina oraingoz garbi dagoen gauza bakarria Ostatu tabernaren kokaleku berria da.

'Zeba?' herriko aldirikariaren azken alean agertzen da, Zezipio-enea etxeari buruzko historia. XVIII. mendeko Olaberriko elizan bikarioa eta koajutorea zeuden eta bakoitzak bere etxea eraiki zen koajutorearentzat. Gerra ondorengo egoera larriari aurre egiteko 1867an Estatuak etxe hau bahitu egin zuen eta salmantan jarri. Subasta bidez Gabiriko Don Domingo Ur-

teagak erosi zuen 1.704 eskudoren truke. Honek, hil aurretik hitzez herriko apai-za zen Don Tomas Lasari saldu zion 4.270 pezetatan. Hau 1889an hil zen eta bere ondasunak (etxe hau tartean zelarik) bere neskamea zen Doña Francisca Garmendiari utzi zion. 1896an honek Jose Manuel Insaustiri saldu zion 4.312 pezetatan eta 50 zentimotan. Hau Ramona Zubiarrainek ezkondu zen eta seme bakarra izan zuten.

Oparotasunean bizi ziren, neskame Manuela eta guzti. Zezipiok 'Fabrika handiko' lana utzi eta Amerikatik buelta egin zuen (batzuk amerikanoa deitzen zioten). Garitain baserriko Faustinarekin ezkondu zen Zezipio eta sei seme-alaba izan zituzten. Aurreneko hirurak jaio ondoren, eta gerra osteko egoera jasan ezinda, etxea saldu egin zuen 1943an 17.500 pezetan. Etxea saltzeko garaian, egunero Zezipiokin txikitoak hartzen aritzen zen Agerrereko Juan Joxe 'sekretarioak' bideak egin omen zituen

eta honen familiakoa zen Mari Karmen Etxeberriak erosi zuen. Hau 1993an Ordizian hil zen eta bere ondasuna bere bi iloba Juana Mari eta M. Begoña Etxeberriarrei pasa zitzairen. 1996. urtean Olaberriko Udalak 14 milioiren trukean erosi zuen etxea.

Euskara ikastaroak

1996-97 ikasturtean euskara ikastaroren batean aritu direnek diru-laguntza jasoko dute Udalaren eskutik. Diru-laguntza hau jasotzeko Udaletxeko idazkaritzara jo dezakezue hilaren bukaera baino lehen.

Barruti tiro-zelaia

Barruti tiro-zelaiko klubak bazkide berriak onartzeko erabakia hartu du. 18 urte baino gehiago dituzten herritarrek izan daitezke bazkide, eta izena emateko epea abenduaren 20an bukatuko da. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Udaletxeko idazkaritzara jo dezake.

Nagore Goiburu

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 88 60 70

BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 9

88 94 82

BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



BERGARA
Barrenkalea, 35
76 03 98

BEASAIN
Nafarroa Etorb., 1
88 48 65

ARRASATE
Otalora z/g
79 11 72

ATAUN

Herriko futbol taldea hizpide



Eta ez da harritzekoa! Denboraldia hasi duenetik izugarritzko martxa onean baitoa. Garaipena garaipenaren ondotik, alajaina! Gipuzkoako txapelketan 2. A mailan dabilen Ataun Urbieta futbol taldeari buruz ari naiz, jakina. Areto-futboleko talde horren entrenatzaileak Joseba Kerejeta eta Joxean Arruabarrena dira. Jokalariak, berriz, argazkian datozenak: ea ezagutzen dituzuen.

B mailako herriko taldea, Ataun K.E. ez dabil hain fin, baina denboraldia luzea da eta ea erreakzionatzen

duten! Ander Goñi da horien entrenatzailea eta jokalaririk, argazkian agertzen direnak.

Bi taldeon hurrengo partiduak hauetxe dira (azaroaren 29an):

- Ataun K.E. - Plaza Berri Sport.

- Ataun Urbieta - Bergarako Lagunak.

Heriotza

Hil berri zaigu Kamioko Azentzio Aierbe. Bere sendiarekin bat egiten dugu euren nahigabearen.

Josune Aldabe

Maomendiko bordetxeak

Maomendiko bordetxeak direlata, joan zen azaroaren 5ean ospatutako plenoan proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuen Udalak (EA eta Herrigintzako alderdiak alderdiak). Erabaki hori hartzeko azaldutako arrazoiak hauek izan ziren: bere garaian, proiektuak ingurugiroaren eta bertako ekonomiaren gainean ze eragin izango zuen aztertzeko eskatu zien Udalak horretan jakitunak diren bi enpresei (IKT eta LKSei).

Azterketa horietan oinarrituz, Udalak (EA eta Herrigintzak) pentsatzen du alderdi elementuak kontrakoak baino gehiago direla (nahiz eta ingurugiroari dagokionean, proiektuan aldatetaren bat egin beharko litzatekeen) eta horregatik, oraingoz aurrera jarraitzea erabaki du. Nola? Horrelako kasuetan beharrezkoak diren tramiteak edo legezko pausoak emanez. Gerora, ingurugiroaren gaineko kaltea gehiegizkoa dela ikusiko balitz, bertan behera utzi-luke ekimen hori.

Herriko HBko ordezkariak, berriz, ez zuten parte hartu botazioan, beren ustetan kalte ekologikoa nabaria izango delako eta bertako nekazaritza ere kaltetuko duelako. Azterketa sakonagoa beharrezkoa dela pentsatzen dute eta gainera, horrelako proiektu batekin jarraitu aurretik, herriari benetako kontsulta bat egin beharko litzaiokela uste dute.

Eskualdean, Goieki proiektuaren alde agertu da (bertan dauden HBko ordezkariak ezik).

Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak dauka auzi horretan iritzi erabakiorra, gogoan izan behar baitugu proiektu hori Aralar Parke Naturalean kokatzen dela eta parke naturalen gaineko ardura Diputazioarena dela. Oraingoz, 2 txosten bidali dizkio Ataungo Udalarari eta bietan horrelako inguruneak babesteko ezarritako arauak bete-betean errespetatu behar direla adierazten du. Hori horrela egiten bada, Aralarren turismo-gune bat egoteko arazorik ez du ikusten Ingurugiro Saileko diputatua den Iñaki Txuekak (beste toki askotan egin direlako eta ingurunean ondo txertatuta geratu direlako); baina erabaki aurretik, proiektua sakonago aztertu beharrean daudela azpimarratu du.

Diputazioaren azken erabakiaren zain geratuko gara, beraz.



GARMENDIA ERAIKUNTZAK

TEILEN BIRGAITZE, MANTENIMENDU ETA MUNTAIA

69 35 49 - 989 65 34 52 Alkorta Enea, 3 2. esk. - ZIZURKIL



GOIERRITARRA



88 96 12

LAZKAO**Txorizugarrien II. Lehiaketa eta erakusketa**

Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Gerrikok antolatuta, txorizugarri edo kuso lehiaketa antolatu da bigarren urtez. Iaz arrakasta handia izan zuen eta errepikatzea erabaki dute aurten. Lehiaketan edonork hartu dezake parte, txorizugarria egiteko edozein material erabiliz. Bete beharreko arau bakarra lurrean tente eusteko ardatza edukitzea da. Txorizugarri hauek, esaldi bat eraman beharko dute euskaraz. Esaldi honek, ez dauka zertan euskara gaitzat eduki beharrik, ez eta errimaduna izan beharrik ere. Esaldia bera, txukun jarrita dagoen ala ez, baloratua izango da halere.

Lehiaketa 5 maila desberdinetan banatuko da, honako sariak izanik irabazleentzat. Gazteenek osatutako

bi mailetakoa irabazleei, ipuin sorta bana oparituko zaie eta helduagoez osatutako gainontzeko hiru mailetakoa irabazleei berriz, 10.000 pezetakoa txeketa-liburu eta disko-azokan gastatzeko. Haurren mailako (14 urte artekoak) eta helduen mailako esaldi onenari, berriz, 5.000-ko txeketa emango zaio liburu eta disko azokan gastatzeko.

Bildutako kuso guztiekin erakusketa bat egingo da, abenduaren 12tik 17ra, Sarasola autobusen garajejan. Parte hartzeko Gerriko liburudendan eman behar da izena, abenduaren 4 baino lehenago, bertan azalduz edo 88 65 00 telefonora deituz. Txorizugarri guztiak Sarasola autobusen garajera eraman behar dira abenduaren 10ean, arratsaldeko 3.00etatik 8.00etara.

**Dukearen parkea eraberritzen**

Futbol-zelaira bidean dagoen parkean zenbait berrikuntza egiten ari dira. Azaroaren bigarren astean hasi ziren obrek, 5 milioitako aurrekontua dute eta gabonetarako amaituak egotea espero da.

Parkea, hesi baten bidez, itxi eta bertaraino espaloia luzatzen ari dira. Parkera sartzeko gainera, zubi txiki bat eraikiko da. Hauetaz

gain beste berrikuntza batzuk ere egingo dira: hormigoizko bidexkak oinezkoentzat, haurrentzako jolas-tokia, banku, mahai eta zaborrontzi berriak eta zuhaitz berrien landaketa.

Lan hauen xedea zera da: herriko jendea parke honetara gehiago hurbiltzea eta bide batez lehendik joaten zirenei zerbitzu egokiagoa eskeintzea.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

IDIAZABAL**Artzantzan erabilitako tresnen bilketa**

Idiazabal eta gazta, bi izenek duten lotura estuari bultzada emateko herrian batzorde bat sortu eta lanean ari da. Talde honek eskuarte bi proiektu nagusi ditu une honetan. Bata Idiazabal izena promozionatzeko hainbat ekintza egitea, horretarako herriko dendari eta tabernariekin elkarlanean ari dira, horrekin batera gaztari eta herriari buruzko informazioa bilduko duen triptikoa ari dira prestatzen. Taldeak eskuarte duen beste proiektua, gaztaren museoa edo erakusketa bat antolatzea da.

Erakusketa hori antolatu ahal izateko, talde horrek artzantzan eta gaztagintzan

erabilitako tresnak jaso, sailkatu eta erakusgai jarri nahi ditu. Horretarako tresna hoiek etxean dituztenei eskaria egin die talde horrek. Etkez-etxe biltzeko prest dauden tresnen zerrenda zabaldu dute. Hoietakoren bat dutenek tresnak utzi edo eman nahi badituzte, edota ekimen honi buruz informazio gehiago jakin nahi duenak ondoko telefonoetara dei dezake: 18 71 00 (udaletxea) edo 18 70 99 (Kultur Etxea).

Bi ekimen hauen gain talde honek badu eskuarte zeregin gehiago: Gaztak izena eman dion beste herriren batekin anaikidetzategia bata, bestea, datorren

udaberrira begira, gaztaren inguruko jaia egitea.

Hoiek aurrera eramateko hilabetero, azkeneko ostegunean bilera egiten du batzordeak, azpitalde bakoitzak egindako lanaren berri eman eta erabakiak hartzeko. Batzordetik jakinarazi denez taldea irekia da eta nahi duen guztiak parte hartu dezake, bere ideiak agertuz edota martxan dauden taldeetan lagunduz.

Festatako bilerak

Datorren urteko Sanblasak antolatzeko lehenengo bilera aurreko ostiralean egin zen. Bilera horretan erabakitakoaren arabera festa urtarilaren 30ean (ostirala)

hasi eta otsailaren 4ean (asteazkena) bukatuko dira.

Aurreko urteetan egin izan den bezala, Krosa festen aurreko asteburuan izango da, urtarilaren 25ean hain zuzen ere. Festarako egun hoietan zein ekitaldi jarri eta zein musika talde ekarri erabakitzeko daude. Horretarako Festa Batzordeak bilera gehiago egingo du, hurrengoa gaur bertan, iluntzeko 20.00etan Kultur Etxean. Festa Batzordeak herritar guztiei deia egin die bilerara joan eta beraien proposamenak egin ditzaten.

Xabier Urteaga

GABIRIA**Giro ezin hobea errezil-sagarren festan**

Joan zen igandean, azaroak 23, ospatu zen Erbie elkar-teak Udalaren babesaz antolatu ohi duen Errezil-Sagarren Lehiaketa eta Baserriko Produktuen Azoka. Aurtengo hau bigarren aldia izan dugu eta giroari dagokionez, eguraldia oso lagun izan genuelako edo, aparta izan zela esan behar; izan ere, jende izugarri hurbildu baitzen lehiaketa eta azoka berezi hori ikustera eta produktuak erostera.

Errezil-sagarren lehiaketan hamalau baserritarrek hartu zuten parte eta sagarraren kalitateari dagokionez, oso erraza ez bada ere, iazkoa baino hobexeagoa izan zela esan dezakegu. Horretaz gain, ekitaldian zehar ondo merezitako



Eguraldia lagun izan zen eta jende ugari inguratu zen igandean.

omenalditxo eskaini zitzaion Jauregi baserriko Martina Arratibeli.

Epaimahaiko lanetan Ze-raingo Jose Antonio Iparra-girre 'Otatza' sagardotegikoa; Martin Irazustabarrena zaldibiarra, herriko Ostatu duena, eta Bittor Sukia ordiziarra aritu ziren eta nahi-

ko lan izan zuten sariak zeini eman erabakitzeke. Baina eginkizun horretarako izendatuta zeudenez, aukera egin behar eta horretarako sagarraren kolorea, tamaina eta mota hartu zituzten kontuan. Ezaugarri bakoitza zerotik hamarrera puntuatu ondoren haxe izan zen irabazleen puntuazioa: Lehe-

nengo saria Izar Aundi baserriko Maria Isabel Zumalakaregi andreak lortu zuen 80,5 punturekin. Bigarren saria Oñatibi-Txikiko Mirren Agirrezabala andreak 78'5 punturekin eta hirugarren saria Beheko-Etxeko Antonia Murgiondo andreak 73 punturekin. Laugarren Gabriel Galdos sailkatu zen 71 punturekin.

Dena den, igandeko festan garbi dago Gabiria eta errezil-sagarra izan zirela irabazle nagusi eta egun horretako giroa ikusi ondoren datorren urtean ere hortxe izango gara festa hau antolatzen, herrian giro berezia sortzen eta errezil-sagarra bultzatzen.

Gabino Murua

ZALDIBIA**Goierritarrak presoan alde Zaldibian**

Euskal presoak euskalerriratu ditzaten eskatzeko, azaroaren 15etik 22ra bitartean goierritar talde bat Zaldibiko Itoiz etxean egon da gose greban. Barruan egon diren bitartean hainbat elkartek, bertsolari eta kultur gizonen elkartasuna jaso dute. Joan den larubatean amaitu zuten itxialdia, herriko plazan egin zuten ekitaldi batekin.

Sor Nikolasaren urrezko ezteiak

Joan den larunbatean, mojararako profesa egin zuela 50 urte bete direlarik, urrezko ezteiak ospatu zituen Urtsukoerrota baserriko Nikolas Erauskinek. 'Carmelitas Descalzas de San José' izeneko klausurako ordenakoa da Nikolas eta Zumaia-

ko komentuan bizi da beste 10 mojararekin batera. Beste ahizpa bat ere badu ordena berekoa, baina hura beste Medina de Río Seco-n bizi da. 55 urte hauetan behin bakarrik ikusi dute elkar. Joan ezkerro ez dira sekula herrira itzuli.

Igandean parroki eguna

Joan den igandean, azaroak 23, Zaldibiko kristau elkar-teak Parroki Eguna ospatzen zuen. Goizeko 11:00etan, meza nagusia izan zen aurtengo hildakoen alde, eta gaineratiko herritarrentzat, euren premietan, laguntza eskatzeko. Ondoren, lagunarteko bazkaria izan zuten Lazkaoetxen. Berrogeita hamar bat lagun bildu ziren bazkaltzera.

Zerga-bilketa

Abenduaren 19ra arte, 1997ko 3. hiruhilabeteko ur hornidura eta 2. seiuhilabeteko zabor bilketako tasen borondatezko ordainketak egiteko epea izango da.

Takolo, Pirritx eta Porrrotxen diska

Takolo, Pirritx eta Porrrotx pailazo taldeak diska berria kaleratu du, Amasako IZ disketxearen eskutik. 'Makarroiak' ipini diote izenburua obra berriari. Azkeneko diska hau kontatuta, guztira sei LP plazaratu dituzte lasartear hauek. Lasartearrak diogu, baina erdi zaldibitartzat ere har ditzakegu taldekide bat, Takolo, hemen bizi baita.

Diskaren egikuntzan Iñaki eta Eduardo Salvador eta

Joseba Tapia izan dituzte laguntzaile alde batetik. Bestetik, Zaldibiko Oneka Garmendiak gidatzen duen Ordiziako Musika Eskolako haurrek (horien artean zaldibitar askok) ere hartu dute parte.

Eneko Gaztañaga txapeldun

Urteroko legez, azaroaren 15ean jokatu zen Aralarko Errekabeltzan Zaldibiko Gaztelu elkar-teak antolatutako ehiz lehiaketa. Eneko Gaztañaga izan zen irabazle, 4 eper eta 3 faisan ehizatu zituelarik. Aritz Urdangarin eta Patxi Gorostiza sailkatu ziren ondoren. Guztira, 20 ehiztarik hartu zuten parte eta 57 pieza bota zituzten.

Rufino Iraola

ZEGAMA

San Nikolas egunean, abenduaren 6an, Aitxuri herri-eskolako ikasleak eskean irtengo dira. Aurtengoan ere 2 gotzain izango ditugu, eta hauek bakarka irten ordez, elkarri txanda emango diote. Gotzain lehenengo Ruben Zabalera jantziko da eta ondoren Eneko Iraola.

Ibilbidea: goizeko 9.30etan herriko plaza-tik irtengo dira, handik San Bartolome auzora, Kooperatiba aurrera, Andraitx, Olaberria auzoa, Botika aurrera, Olan, Manolo taberna aurrera, Txanton, Buztinkalea, Elor-Txiki, Arrano Aitz eta Alderdi Ederretik pasa ondoren, Txarapen emango diote amaiera. Aitxuri herri-eskolako ikasle-en erabakiz, Peruko Hogar Belenera bidaliko da dirua.

Atzoko Zegama

Azaroaren 14an, egin zen Kultur Etxean 'Atzoko Zegama' izenburua duen Xabier Azurmendi Agirreren liburuaren aurkezpena. Azaroaren 13an, Jose Mari Otamendik, Xabierren izakera azaldu zigun eta bizitzan zehar izandako zenbait gertakizun goi mailako hitzaldia emanaz. Bertan izaterik izan ez zutenek, 'Atzoko Zegama' liburuaren sarreran dute hitzaldia oso-osorik irakurgai.



Liburuaren aurkezpena Luis Mari Zalduak egin zuen, liburu honen Editorea ere bera da. Luis Mari Zalduaren iritziz, herri gutxi omen dute horrelako lan aberatsa eginda. Esan Xabier Azurmendiren lan honetan gutxi gora-behera 30 bat urte luzetan zehar bildutako istorio, esaera eta atso-titz ugari daudela bertan. Zegamako ahozko literatura era paregabean jasota utzi digu Xabierrek.

Azaroaren 23an, San Adrian aldera joan zen berrogeikoren bat eta bertan Santi Espirituko historia, Galtzada Zaharra eta Berriko historia eta San Adrian-go leizezuloaren historia eta pasarteak ezagutu genituen Karlos De Pradoren ahotik,

San Nikolas

beti ere honek San Adrian eta Inguruen kondairan azaldutako bertsioa azaldu zuen. Ondoren San Adrian-go ermitan, Xabierren oroimenez oroigarri bat utzi zuen Udalak.

'Atzoko Zegama' liburuaren Zegaman, bi lekutan eros daiteke, 1.500 pezetaren truke: Estankon eta Maria Jesus Ariztimuñoren dendan.

Zeramika erakusketa

Guztioi jakinerazten zaizue, Gregorio Aramendiren omenezko zeramika erakusketa ikusgarria ikusteko aukera duzuela. Bertako zeramika eta kanpoko materialak ere ikus daitezke, Arantzadi Zientzia Elkartek utzitako piezak direla medio. Asteburuetan goiz eta arratsalde dago irekita eta aste egunetan, 801115 telefonora deituz ikus daiteke.

Eduarne Albizu



Antzerkia

'Jo ezak berriro Sam' antzerki obra ikusteko aukera izan genuen azaroaren 23an arratsaldean, Zinean. Herriko aktoreek emandako maila benetan ikusgarria izan zen, egindako lana izugarria zela nabari zen. Ia bi ordutako obra honek herriar guztiak antzerkian murgiltzea lortu zuen. Zinema puntaraino beterik zegoenez, 400 ikusle izan zirela ondorioztatzen da. Aktoreak honako hauek genituen: Asier Elizegi (Bogart), Olatz Olarte (Nancy), Eskarne Galdos (Dick), Iker Goiburu (Allan), Arrate Igoa (Gina), Amaia Arrieta (Linda) eta Arantxa Goiburu (Susan). Zuzendaria: Lurdes Intxausti.

Antzerki talde hau duela urte t'erdi inguru hasi zen lanean, ideia Kultur Etxean aurkeztu ondoren. Ikastaro edo oinarritzko teknikak ikas zitzaizkien Kultur Etxeak eman zien dirulaguntza eta emaitza oso ona izan dela esan behar. Zorionak guztioi!

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
☎ 88 45 06 **BEASAIN**

LAZKAO
GARAJEA
Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO
RENAULT
AGENTZIA

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998
BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA
• LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
• ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
R.P.S. 213/97
Eskatu ordura: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

SEGURA

Erreferenduma eskatuko da bariantez

Madurako lur-jabeei azaroaren 11n adierazi bazieten ere, 13ko Udal plenoan eman zuten jakitera EAk eta EAJk Madurako bariantea aldeko jarrera. HB Zerkaldeko trabesiaren alde azaldu bazen ere, Udalak Madurako bariantearekin aurrera egitea erabaki zuen.

Hala ere, erabakia historia delakoan eta herrirako duen garrantzia ikusirik, lur-jabeeek herri-kontsulta (Madurako bariantea edo Zerkaldeko trabesia) egitea eskatuko diote Udalari. Eskara hori babesteko herritarren firma bilketari ekin diote. Kaltetuek diotenez, abenduaren 1era arte firma daiteke erreferendumaren alde.

Azterketa arkeologikoak

Kaskoaren azterketa arkeologikoa burutzen ari diren Aranzadikoeak, Albaitteroneko baratzean labe itxura duten egiturak aurkitu zituzten.

Hemendik, kaleguene aldera jo zuten, kaskoaren kontserbazioari dagokionez galdue-na dagoen gunera, herria inguratuko zuen XIII. mendeko harresiaren aztarnen bila. Zurbanoneko jardinean egindako zulaketan ez zitzaizen ezer azaldu. Aste honetan Zurbanoneko baratzean ziren hasterkoak; eta hemen ez bada ezer azaltzen, baratzatik jardinerara doan errepidea zulatuko dute. Ondoren, arboladian dira hasterkoak.

Umetxea

Oraindik eskolaratu gabe dauden umeak eta gurasoak, negua inguratzearekin, plaza edo parkean ezin direnez egon, seme-alabekin egon ahal izateko lokal baten beharra dute. Hori dela eta, umetxe bat lortzeko egitasmoarekin batera, sinadura bilketa hasi dute. Eskaria, Udalari zuzenduko diote,

honek, gotzaitegiari Zurbanoneko etxeko aretoaren bat eska diezaioten eta egitasmoa gauzatzeko bere esku dagoen guztia egin dezan.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

Errejonialak: Segura 5-1

Antoniano. **Jubenilak:** La

Salle 3-0 Segura. **Kadeteak:**

Aizkorri 2-1 San Inazio. **Infantilak:** Aizkorri 2-

0 Almen.

Asteburuan etxean: Ju-

benilak: Segura-Antiguoko,

jaietan 16:00etan.

Labur labur

● **Kirol eskolarra:** Urriaren 16an Irungo kroseean, mutil alebinetan, 187 parte-hartzaileetatik, 6. geratu zen Eneko Agirrezabal eta 15. Beñat Zubeldia. Laiotz, 18

ikastetxetatik 6. geratu zen.

● **Pelota:** azaroaren 23an, Gipuzkoako klubaren artekoan, final laurdenetan kanporatu ziren Egoitz Berasategi eta Ibon Etxeberria, 22-15 galdu ondoren bergararren kontra.

● Azaroaren 24an itxi zuten **Antonkalene**, taberna berri-
tutua ondoren berriro zabaltzeko.

● Azaroaren 28an, 18:30etan, Txanbolinpen, diabolito, hankapalo, pultsera eta malabaren ikastaroa izango da **Segurako gazte Asanbladak** antolatuta.

● Azaroaren 29an ospatuko da **inutilen afarie**. Iluntzeko poteoarekin hasita, Mutiloako Ostaturun izango dute afaria.

Joseba Telleria



San Andres azaroaren 30ean

Aurten, santuaren egun berean ospatuko da San Andres eguna, izen bereko ermittan. 12:30etan izango da auzoan hildakoen aldeko meza eta ondoren Udalaren laguntzaz, herriko txistularien saioarekin batera, hamaiketako eskainiko da elizatarian.

Nobedadeen artean, L. P. Peña Santiagoren emazteak San Andresko ermittari emandako 1,20 x 90 zm-ko Santiagoren irudia ikusi ahal izango da. Bestalde, aldre nagusian dagoen San Andresen irudia berriztatua izan da; pipiaren kontra-
tratamenduaz gain, pitzadurak eta zuloak moldatu eta jatorrizko koloreak eman dizkio Sindy Santiagok, arte aplikatuetako irakasleak.



San Nikolas abenduaren 6an

Goizeko 10:30etan parrokiako San Nikolasen aldarean ume-entzako emango den mezaren ondoren, neska-mutiko koadrila atzetik duela aterako da San Nikolas obispotxoak, poni gainean, urteroko kantu-eskera. Jermanenetik hasita, Kale Nagusia igo, plaza gurutzatu, Erdiko Kalea jaitsi eta Baztar Kaletik igota, Akelarre, Itturiberrialdea eta Gain-Argi pasata, bikarioaren etxe aurrean amaituko dute. Hemendik, komentuko lokutoriora sartuko dira bertako mojei kantatzera. 6 urteko mutikoen artean egiten den zozketan, aurtengoan Lander Irastorza Intxaustiri tokatu zaio San Nikolas janzteko ohorea.

75 urtez San Nikolasen ohiturari eusteaz arduratu zen Ramoza Lezeta azaroaren 24an hil zen. Azaroaren 25ean, bere hiletan, herriko neska-mutikoei, San Nikolasen kantua abestuz agurtu zuten.

ORMAIZTEGI Giro ederra jaietako lehen asteburuan



Eleganteen eguna izan zen larunbatean.

Giro ederrean ospatu ziren aurtengo Ander Deunaren jaien barnean antolaturiko lehen asteburuko ekitaldiak. Ostiral arratsaldean emakumeen puntu lehiaketa eta Txindata Musika Eskolako ikasleen kontzertuak izan ziren festa giroa jarri zutenak. Ondoren bertsolariek hartu zuten lekua Zubipe kiroldegian.

Eleganteen eta umeen eguna iritsi zen larunbatean. Enparantzan gazteak nagusi izan ziren bazkaria ospatu zen. Bazkal ostean Egunkaria taldeko antzerki taldea, Saltsa Tronik antzerkiaren

bitartez, bertaraturiko haurren partaidetza lortu zuten giro polita jarri. Ondoren Guraso Elkartek prestatutako txokolatea dastatzeko aukera izan zen. Larunbateko festei gauen ospatu zen rock kontzertuak eman zuten amaiera.

Igandea ere festa ekintza ugari eguna izan genuen. Goizean goiz Euskal Herriko hainbat lekutatik gure herrira hurbildu ziren artisauen lanak bertatik ezagutzeko aukera izan zen. Besteak beste bolillo eta eskulanak, artile, larru, egur eta brontzez eginko lanak eta

Nafarroako garrapiñadak, Orozkoko euskal pastela eta ogiarekin batera nola egiten dituzten ikusteko aukera izan zen. Ondoren Udalak Ander Deunaren jaien barnean eskaini izan duen haiaiketako dastatzeko aukera izan zen.

Igande arratsaldeko ekitaldietan kirolak izan ziren nagusi. Lehenengo hiru pilota partidua izan ziren. Haurretan Urko Lasak eta Gorka Izagirrek 18-12 irabazi zuten Jon Mujika eta Aitor Iraetari. Ondoren gazte mailan Amundarain eta Iraetarak, Errazkin eta Aranbururi 22-19 irabazi zuten. Afizionatu mailan, berriz, Olaiola II eta Auskinek 22-21 irabazi zuten Saralegi eta Txikitori.

Pilota partiduen ondoren herri-kirol jaialdia, bertan Goenatxo II harrijasotzailea eta Larretxea, Arrospide, Mugerza eta Elorriaga aizkolariak lehian ikusteko aukera izan zen. Sei probet osaturiko ikuskizuna izan zen, amaieran txanda libre proba nagusian irabazle Elorriaga eta Arrospide bi-

kotea gelditu zen. Epaile lanean Joxe Mari Zinkunegi eta Leon Albeniz aritu ziren.

Lehenengo Goenatxok 250 kiloko kuadroarekin hiru altxaldi egin zituen 2 minutu eta 15 segunduko denboran. Ondoren Mugerza eta Elorriaga aizkolariak zutikako enbor mozketan egin zuten. Mugerza izan zen lehena. Goenatxo IIak 2 minutuko saioan 163 kiloko kubikoarekin 8 altxaldi egin zituen jarraian. Hurrengo proba azkartasunarena izan zen, Larretxea eta Arrospide aizkolarien artean. Larretxea izan zen azkarrena. Goenatxo IIa 100 kiloko bolarekin lepoari lau aldeetara birak ematen aritu zen denbora librean. Eta ondoren, Larretxea eta Mugerza bikotea, Arrospide eta Elorriagaren aurka aritu ziren txanda librean. Burutu zuten lana 6 korte aizkoran, 8 korte trontzan eta 25 buelta korrika izan ziren. Irabazle Arrospide eta Elorriaga bikotea izan zen.

Aitziber Murua

Ei
RAK

Zumarraga bidea, z/g

© 88 03 97

Faxa: 88 90 54

ORMAIZTEGI

INDUSTRIAK, S. L.

KALDERERIA

- ✗ Inoxidablea
- ✗ Aluminioa
- ✗ CNC punzonadora

EKAI | Z

TABERNAk jai
zoriontsuak opa dizkizue

☎ 88 27 71 **ORMAIZTEGI**

GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA

☎ 88 55 00 **ORDIZIA**



Ormaiztegiako ikastolako ikasleak

Eider Gaztañagak utzi digu argazkia, Ormaiztegiako Ikastolako ikasleena da. Zein urtetan ateratakoa den ez dakigu, baina argazkikoak 1971-1974 urte bitarte inguruan jaiotakoak dira.

Andereñoak: Lierni Baztarrika eta Lourdes Estensoro.

Goiko lerroan: Anabel Navascues, Maider Zabaleta, Marian Biurrun, Mikel Gurrutxaga, Unai Azpiazu, Mikel Intxausti, Jon Balerdi, Jon Lizarralde, Jon Aldanondo, Josu Mendia, Josu Maiora, Ander Murua, Aitor Oñatibia, Aloña Iurrita, Kristina Vila eta Fausto Esnarriaga.

Bigarren lerroan: Izaskun Izagirre, Iker Elorza, Iñaki Etxezarreta, Aitor Etxezarreta, ezezaguna, Martxel Mendizabal, ezezaguna, Idoia Oiarzabal, Oihana Oñatibia, ezezaguna, Koldo Uribe-Etxebarria, Izaskun Nuñez, Oier Berasategi, Igor Olan, Elixabete Uribe-Etxebarria eta Jon Madina.

Lurrean eserita: Oihana Azpiazu, Eli Elgarresta, Mari Jose Arana, Eider Gaztañaga, Irati Arzelus, Idoia Mazorriaga, Arrate Aldanondo, Idoia Artola, Koldo Mendizabal, Sonia Mendizabal eta Amaia Etxezarreta.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.



K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

ORMAIZTEGIKO JAIK 1996

Alkatearen agurra

Gainean ditugun San Andres jai hauetan
adin orotako herritar guztioi eta kanpotik
etorriko zareten guztiei prestatu zaigun festa
ekintzetan parte hartzeko nire gonbitea
luzatzen dizuet.

Bestalde egun hauetan gure artean egoterik
ezin izango dutenek izan dezate gure
oroimena.

Festak ondo pasa!!!



ORMAIZTEGIKO
UDALA

*Seriotasuna, profesionaltasuna eta aukera
ezberdinak aurkitu nahi badituzu*

ORLEGI

Elikadura Naturala eta Belardenda

Nafarroa Etorbidea, 5

Kale Nagusia, 15

☎ 162110

BEASAIN

*Gabonetako produktu naturalak:
turroiak, txanpaina, gorroak, e. a*

MEDIKU ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

- Txaro del Teso: NATUROPATA
- Esteban Rodriguez: MEDIKUNTZA HOLISTIKOA
- Jesus Huarte: MEDIKUA (elk. zenb. 3.840)
- Rosa Monge: DIETISTA
- Rufino Murgia: MASAIARIA - OSTEOPATA
- M^a Jose Gonzalez: MASAIARIA - AKUPUNTUREA



ARDOTEGIAT

B
ELOSEGI
D
E
G
ARACO
S

AENOR

R

Empresa
Registrada
EX-00052/97

IONet



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)



bel è n

„Zire gabonetake oparien denda”

Urdaneta Kalea, 24 eta 25 ☎ 16 22 87 ORDIZIA